

ttipi ttapa

2003ko otsailaren 6a • XXIII. urtea


343



Xanti Juanikotena
anbulantzia gidaria

03

Urtarrilaren 7az geroztik huelgan daude Nafarroako ambulanti gidari eta laguntzaileak. «Zerbitzua pribatua da eta hortik heldu dira aferak» dio Xanti Juanikote-



Baztango Kirol
Taldea bikain

28

Bigarren mailako eskubaloia liga irabazteko gutti falta zaio Baztango Kirol taldeari. Mailaz igaitzeko sektoreko fasea jokatu beharko dute gero.



04 Birziklatzeko lehen urratsa da hondakinak behar bezala bereiztea

MUEBLES METS



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
EREKIA**

**Sarrera
BERA**tik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA

*Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak

**4000 m² erakusketa
AUKERA HANDIAK**



ME K

**ERAKUSKETA
ALDAKETA**

**BEHERAPEN
HANDIAK**

METS

KOLTZOIAK

- MALGUKIA
- LATEX-a
- MIXTOA

OINARRIAK

- SOMIERRAK
- ABATIBLEAK
- TAPIZATUAK

**%50
deskontua**



**Erakusketa aldatzen dugulako
30 moble-multzoen likidazioa**



DATUAK...

- Urteari greban ekin diote Nafarroako anbulantzietako gidari eta laguntzaileek. Lan baldintza hobek eta enpresa publiko baten sorrera eskatzen dute, bertzeak bertze.
- Xanti Juanikotena, 39 urteko elbetearra, anbulantzia gidaria da eta Lesakako zentruan aritzen da, Baztan-Bidasoako Anbulantziak enpresarendako. Hogeita hemezortzi langile ditu enpresa honek, Altsasu, Leitza, Doneztebe eta Lesakako zentruetan.

Xanti JUANIKOTENA *Anbulantzia gidaria*

AITOR AROTZENA

«Anbulantzia zerbitzua pribatua da orain eta hortik heldu dira aferak»

Aitor AROTZENA

Zer da anbulantzietako gidari eta laguntzaileek eskatzen duzuen? Soldaten aferan, bertze urteetan kontuan hartuak ziren presentziako orduak desagertu egin dira eta kasik 50.000 pezeta jausten zaigu. Hone-la, gidariei 691 euroko soldata gelditzen zaigu eta laguntzaileek 600 eurokoa. Administrazioak ere onartu du gure soldatak arras pobreak direla, baina inork ez du deus egin hori moldatzeko. Gainera, gauez aritzen gara, besta egunetan... eta horren gainean soldata-plus bat eskatzen dugu. Hori lantegi guzietan izaten da, ez da berdina Urtezahar gauean lan egitea edo astegunez aritzea. Arrisku plusa ere eskatzen dugu. Istripu bat izatea ez da zaila gure lanbidean, baina horretaz gain, segurtasun neurriak betetzen baditugu ere, kutsatu eta gaitzen bat hartzen ahal dugu. Lanean berriz hasteko, gidari entzat 1.021 euroko soldata eskatu dugu, eta laguntzaileentzat 943 eurokoa.

Sindikatuaren arteko ikamikak arruntak dira gaur egun, baina afera ho-

«Asteburu eta besta egunetan aritzeagatik plus bat eskatzen dugu, baita arriskuarengatik ere: istripuak ez ezik gaitzen bat kutsatzen ahal zaigu»

netan batasun osoa lortu duzue...

Bai, momentuan elkar hartu dugu Nafarroan LAB, ELA, UGT eta CCOOK. Baina Nafarroako Gobernuak ez du LAB hor egotea ongi ikusten, baina langileok hor egotea erabaki genuen, langile aunitz ordezkatzeko dituelako, batez ere gure alderdi honetan. **Nafarroako Gobernuak akordiora ailegatzeko borondaterik erakutsi al du?**

Urtarrilaren 20an sindikatuak oposizioarekin eta gobernuarekin bildu ziren. Goizez bildu ziren, baina Santiago Cervera osasun kontseilariak arratsaldean joatea erabaki zuen. Sindikatuarekin ez omen du deus jakin nahi, baina sindikatuak dira langileen eskakizunak transmititzen dituztenak. Greba utzi arte ez dela negoziatorik izanen erran du Nafarroako Gobernuak, baina guk ezetz erran

dugu. Urtarrilaren 7tik greban gaude eta ez da afera zuzentzeko seinalerik, sinadura bat bederen eskatzen dugu.

Gaur egun enpresa pribatu baten-tzako ari zarete lanean. Enpresa publiko baten sorrera ere eskatzen duzue, ez da?

Bai, Nafarroako Gobernuak kontzertua ateratzen du eta enpresek urte-urtera eskaintza aurkeztu behar dute. Zerbitzua hartzeko prezioa jautsi egiten dute eta hortik heldu dira aferak, ezin ailegatu eta... Horrek eragin handia du ez bakarrik gure soldatetan, baita eskaintzen den zerbitzuan ere.

Zein izaten dira inguru honetako zentruetan gehien egiten dituzuen ateraldiak?

Denetarik izaten dugu, trafiko eta lan istripuak izaten dira. Bertze gisara, eriak ere eramaten ditugu, Lesakako erresidentziatik... baina orokorrean ez da izaten larrialdi handirik. Normalean Irungo Komarkalera eramaten ditugu, eta lan istripuen kasuan aunitz Donostiara, hango ospitalekin izaten baitute asegurua.



BIRZIKLAIA



Ez da aspaldiko kontua etxebizitzetako zabor guztiak nahasiak biltzen zirela. Gaur egun herririk handienetan bederen, berezita biltzen dira paper eta kartoiak, beirazko botil eta ontziak, lata eta plastikozko enbaseak, pilak, sukaldeko olioak, neurri handiko trasteak...

Birziklatzeko lehen urratsa da hondakinak behar bezala bereiztea

Urtean bakoitzak hainbortze kilo zabor sortzen dugu etxean. Aparte kontatu beharko ziren industria eta baserrietako hondakinak. Eta ez pentsa guti direnik. Oraingo honetan, dena den, etxebizitzetan sortzen diren zabor eta hondakinei erreparatuko diogu batez ere. Kontzientzia hartzea nabarmen emendatu da urteak pasatu ahala. Halere, ez da sobera izanen orotaraztea birziklatua ahal izateko zeinen garrantzitsua den zaborrak ongi bereiztea.

J. IRIGOIEN

Etxebizitzetan sortzen diren zabor eta hondakinak hasiera beretik ongi eta zentzuz bereiztea da gero, hondakin horien birziklatze prozesuan, nabarmen erraztu eta merketzen duen faktorea. Horren guztiaren kontzientzia hartze kanpainak egin dituzte azken aldiotan udal administrazioek, eta egia erran, horretarako baliabideak jarriak dituzten herrietan, urtetik urtera handiagoa da birziklatzen den hondakinen kopurua.

Oraindik, ordea, badira herri batzuk hondakinak bereiztuak biltzeko zaborrontzi egokirik jarri ez dituztenak. Pentsatzekoa da, halere, luze gabe herri horietan ere jarriko dituztela zaborrontzi egokiak hondakin desberdinak bakoitza bere aldetik bildu ahal izateko.

EMAUSEKO TRAPEROEN ESPERIENTZIA

Emauseko Traperoak birziklatzearen filosofiarekin arras identifikatua den erakundea da. Ehun eta hogeita lau inguru okupatzen dira Iruñeko aldean, eta beraien esku dago Nafarroako bertze zenbait eskualdetan egiten duten moduan, Baztan, Bortziririk eta Malerrekan kartoiak, enbaseak eta neurri handiko trasteen bilketa. Federiko Larnaga, Emauseko lankideak "orokorrean positibotzat" jo du kasik bi urteotako esperientzia. Izan ere, gero eta hondakin kopuru handiagoak berreskuratzen baitira. Zernahi dela ere, martxo aldera egiten dute bilera bat hiru mankomunitate hauetako ordezkariekin, eta ordurako, "konparazio eta balorazio ego-kiagoak egiteko baliagarri izan den azterketa" prestatzen ari dira.

BERRESKURATU DIREN HONDAKINEN KOPURUAK

BEREIZKETA ONGI EGITEKO EMAUSEKO TRAPERROEN AHOLKUAK

NEURRI HANDIKO TRASTEAK

Neurri handiko trasteen biltzeta zerbitzuaren eboluzioa azpimarratu du bereziki Federiko Laurnagak. "Jendek aski gustora hartu duen zerbitzua da. Bilketa hila-betean behin egitetik aste-oro egitera pasatu da, eta Bortziritako kasuan, astean bi aldiz". Kontuan hartu behar da lehenik Herriko Etxe edo Mankomunitate-etara deitu behar dela, eta Emauseko Traperoei etxera joaten direla trasteen bila. Hortaz, Baztan, Bortziriak eta Malerrekan:

- ❶ **Ez ateri trasteak karrikara.** Deitu Mankomunitatera eta etxera joanen dira biltzera.
- ❷ **Deitzerakoan,** eramatea nahi den **traste guzti guztien berri eman.**
- ❸ **Bakarrik etxeetako trasteak** biltzen dira. Baliteke geroago enpresetako ere biltzea, baina momentuz ez.

PAPERA ETA KARTOIAK

Bakarrik Baztan eta Bortziritako papera birziklatzen da. Malerrekako zaborrontzi urdinetakoa ez da birziklatzen.

- ❶ **Igloo itxurako ontzien barnean sartu behar dira beti.** Ez utzi kanpoan.
- ❷ **Kartoiak eta kaxak hautsi, plegatu eta barnean sartu.**

ENBASEAK

Plastiko, brik eta latzak enbaseak soilik.

- ❶ **Enbaseak garbiak eta hutsak sartu.**
- ❷ **Hondakin organikorik ez sartu.**
- ❸ **Enbase sueltoak bota,** boltsatik ateriak. Gero zabor boltsa hutsa ere bai.

PAPERA ETA ENBASEAK 2002

	Biztanleak 2002	PAPERA	ENBASEAK
Baztan	7.886	482.383	136.452
Bortziriak	8.233	333.225	55.036
Leitza	2.935	-	0
Malerreka	5.291	100.836	21.410



NEURRI HANDIKO TRASTEAK

	Bildutakoa	Baztertua	Berreskuratua	%
Baztan	58.910	14.810	44.100	75%
Bortziriak	122.905	26.130	96.775	79%
Malerreka	29.675	6.445	23.230	78%
Leitza	-	-	-	-

Emauseko Traperoei biltzen dituzte paperak, enbaseak eta neurri handiko trasteak Baztan, Bortziriak eta Malerrekan. Leitza-Areson Ariztimuñok biltzen ditu trasteak. Ez dago estatistikarik



SUKALDEKO OLIOAK

	Jatetxe Tabernak	Etxe Partikularrak	Pertsona kopurua
Baztan	12.850 Kg.	1.170 Kg.	508
Bertizarana	1.250 Kg.	0	0
Bortziriak	39.000 Kg.	1.150 Kg.	636
Leitza	3.500 Kg.	2.330 Kg.	1.750
Malerreka	7.400 Kg.	0	0
Urdazubi	13.300 Kg.	0	0
Zugarramurdi	3.700 Kg.	0	0

Sukaldeko olioak biltzeaz Ecogras enpresa arduratzen da. Biltutako olioarekin autoendako *biodiesela* egiten da.



BEIRA EDO KRISTALEZKO BOTIL ETA POTEAK

Udalerrria	Biztanleak 2001	Biztanleak 2002	Kiloak 2001	Kiloak 2002	Kg/Biz
Arano	143	144	8.552	6.987	48,52
Arantza	679	645	9.115	11.836	18,35
Areso	307	283	3.512	-	-
Azkain	-	-	-	-	-
Baztan	7.741	7.886	162.155	235.240	29,83
Beintza-Labaien	296	291	4.912	5.814	19,98
Bera	3.511	3.531	118.147	107.577	30,47
Bertizarana	719	655	6.926	8.295	12,66
Donamaria	379	393	6.831	11.275	28,69
Doneztebe	1.368	1.377	67.270	58.927	42,79
Elgorriaga	268	207	9.656	7.053	34,07
Eratsun	179	190	1.745	1.848	9,73
Etxalar	791	793	31.773	32.797	41,36
Ezkurra	245	218	3.213	2.478	11,37
Goizueta	906	891	30.669	21.902	24,58
Igantzi	593	598	11.172	15.077	25,21
Ituren	465	464	5.149	4.263	9,19
Leitza	3.003	2.935	58.691	76.686	-
Lesaka	2.737	2.666	49.322	57.464	21,56
Oitz	149	145	1.879	3.650	25,17
Saldias	153	146	1.661	1.609	11,02
Sara	2.204	-	-	-	-
Senpere	-	-	-	-	-
Sunbilla	677	706	20.600	26.866	38,05
Urdazubi	402	391	33.593	84.599	216,36
Urrotz	213	202	2.216	2.845	14,08
Zubieta	314	298	7.374	6.329	21,24
Zugarramurdi	237	231	421	4.120	17,84

Batazbeste, urtean 38 kilo beira kontsumitzen dugula kontuan hartuz, 2006rako kontsumo horren %60a birziklatzeko helburua markatua du Europako Batasunak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apeztekoa.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irgoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Zein errealitatean bizi gara?

Joan den egun batean, mendian barna pasiatzen ari nintzela, harritua gelditu nintzen belagi bat ur botila hutsez beteaz ikusterakoan. Zer erran nahi zuen horrek? Han eta hemen galde-tuz, gazteek droga ilegalekin «trapitxeatzeko» erabiltzen duten leku bat zela jakin nuen. «Su» horrekin jostetan aritzena ez dute aski nonbait, gainera ez dute mendia errespetatzen eta zikin-du egiten digute.

Baina su edo josteta horretaz solas eginez, zerk bultzatzen du gure gazteak sustantzia ilegal horiek hartzera?

Errealitateak ihes egiteko modu bat da, bartzuek erraten duten be-

zala «hodeien barna egoteko» une bat. Beraien etorkizuna poliki-poliki hondatzeko une bat, horretaz jabetu gabe. Edo jabetzen dira? Gustokoa izan edo ez, sustantzia horietako bat hartzen dugun lehen unetik, osasuna kalte-tzen ari gara. Topikoa iduri du, baina zuek erranen didazue etorkizuneko negozioia «sikiatrikoak» direnean. Bertan sartu beharko ditugu gure seme-alabak, hodeien barna ibiltzearen ondorioak somatzen dituztenean.

Egia errateko, arazoetatik edo eguneroko errealitateak ihes egiteko modurik erraz eta ximpleena da, baina... bizi guzian horrela moldatu behar dituzte beraien arazoak? Arazoa gizar-tearena da, gure herria

eta hirien barna harat-honat dabilen kimika guztiarengatik.

Guraso aunitzek zera erraten dugu: Ez da nire arazoa, nire seme-alabek ez baitute deus ere sartzen.

Seme-alaba aunitzek zera erraten dute: «Bah! Niri ez zait deus ere gertatuko... nik kontrolatzen dut», gertatzen zaien arte.


Zein neurrira arte dute familiaren bizitza hondatzeko edo arruinatzeko eskubidea? (gustora egiten baldin badugu ere). Drogek dituzten ondorioak ugariak dira, gazte-gazterik bihotzeko ataketa ematetik hasi, burua galtzearekin segitu eta eskizofreniara ailegatu bitarte, eta bertze lesio aunitz, baina luze joko luke horiek guziak aipatzea. Baina, zeinek

zaintzen ditu pertsona horiek? Zeinek sufritzen du beraiengatik? Familiak.

Drogaren arazoa lehen ere bazen, orain ere bada eta etorkizunean ere izanen da, baina gure eskuetan dago gaztediaren alde zerbait egitea. Beti izan dira drogak, baina inoiz ere ez gaur egungo kimikoak bezain suntsitzaileak, gaur egun oraindik ez ondorio sortzen ahal dituen, baina denbora guttitan zenbait gauza ikusi behar ditugu... Zorionsu izateko inoiz ez denez berandu: DROGARIK EZ!!

G.L.
(erredakzioan itzulia)

Zure ingurua klase guzizko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xaguboz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



© 948630155
BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466
948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA



**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



LARRALDEA
SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKARAZ
© 948 452121

• KOLABORAZIOAK •

UGTko agerpen historikoa Baztan eta Bidasoan

1930eko hamarkadan Berak 2.500 biztanle zituen, trenbidearen bidez Irun eta Elizondorekin ongo komunikatuak. Trenbide hau La compañía de Ferrocarriles del Bidasoa (1912) konpainiak kudeatzen zuen. Konpainia hau La Compañía de Minas de Irún y Lesaca izeneko aurreko jabeari kapitalista frantses-multzobatek erosi zion. Herriko zerbitzu eta industri-ehunaren osagaiak hainbat zerrategi eta egurtegi ziren, baita merkataritza handia ere, Frantziako hurbiltasun geografikoaren eskutik. Baina, oterik gabe, 200 langilek osaturiko enpresa nagusia Fundiciones de Vera S.A. (1917) zen. Kapital bizkaitarraren pean enpresa honek urrezko lingoteak sortzen zituen landare-ikatz erabiliz, bertzeak bertze. 4.000 Tona inguru urtean zen bere ekoizpena, bagoi-malguki eta meatze ustiatzeaz gain. Enpresa honen lan-baldintza txarrek langileak bultzatu zituzten Sindicato Libre Profesional sindikatua sortzera. Sindikatuak joera katoliko eta atzerakoia zuen. Hilabete gutxi beranduago, 1930eko azaroaren 30ean, afiliatu "profesional"-en heren bat erakundetik irten eta Sindicato de Obreros Metalúrgicos de la UGT de Vera de Bidasoa izenekoak sortu zuten.

Hilabete batzuetako greba luze bat zela kausa, UGTkoek aurre egin zioten enpresaren zuzendariari. Protesta bukatu zen Iruñean metalurgi-atalaren kide batzuk prozesatuz. Salvador Goñi Urriza abokatu sozialistak defendatutako kide hauek 1930. urtean absolbiturik geratu ziren. Eloy Adazábal, Faustino Martínez, Juan Usandizaga, Anadón anaiak, Eleuterio Gainza eta José María Iriarte ziren, bertzeak bertze, Beran UGTko ideien bultzatzaile nagusiak. Beraien biltokia Matxiarena etxe-gibela zen.

Herrian bi sindikalista garrantzitsuak UGTko merkataritza-atalak idazkariak, José Meháx eta Felipe Villacañas Mindeguía ziren.

1935eko maiatzaren 22an, Eusebio Fernández de Velasco, Nafarroako Lan-Ordezkaritza Probinzialak Beran 1930etik UGTko agerpena ziurtatzen du "...sortu zenetik funtzionatzeari uztea jasotzeko erdezkaritza honetan". 1935eko maiatzaren 29an, langileen erakundeko idazkaria zelarrik, José M. Meháxek aditzera eman zuen Alzate karrikako 30. Zenbakia UGTko helbide soziala zela eta 56 afiliatuek kuota ordaintzen zutela. (...)

(...) 1936ko abenduaren 11n, Diario de Navarra egunkariak argitaratu zuen abenduaren 10ean Iruñeko Gotorlekua inguruetan "mugimenduaren hasieratik aurrera matxinada leporatzen ziren Berako hiru gizabanakoak" izan zirela. Hiruetako bat Faustino Martínez Urteaga zen, Guenes-en (Bizkaian) jaioa, 56 urtekoa, Juana Ferrero Azconarekin ezkondua, lau seme-alaben aita, sozialista hutsa eta sortu zenetik tokiko Sindicato metalúrgico de la UGT sin-

dikatuaren burua.

Baina Berako UGTkoak ez zeuden bakarrik Bidasoako erretenean. 1932. Urtean ¡Trabajadores! Astekarian R. Osésen "La lucha en la montaña" ("Borroka mendian") izeneko artikulua idatzi zuen, hurrengoaren erantzun: "Lehenengo mezalagunarengandik apaiz-artaldearen azken sakristaurengana, eskuindar batuek egiten duten etengabeko kanpaina izan arren, Mendiak bizkar ematen die eta urrats txikiak baina irmoak emanez menditarrak UGTko erakundera etortzen dira. Murgilduta dauden ezjakite eta esklabotzaz ohartzen dira menditarrak, eta honen arabera jokatzeko dute, UGTko guneak sortuz eta hauetan sartuz, hainbeste mendetan esklabotzatan langile menditarra izan duen jauntxoaren aurka borrokatzeko".

Nahi duenak irakur dezan, Donezteben ¡Trabajadores! astekariko berriemaileak hurrengo kronika idatzi zuen: "Herri honetan Elgorriagako balnearioaren lanak, azkar-azkar, betetzen direla jakin dugu, eta badakizue nola? Bada hor aritzen diren langileak behartuz, hamar orduko lanaldian lan egitera, alajaina! Agerian dagoez, balneario honen administratzaileak lege guztiei ez die jaramonik egin eta orain zera galdetuko dugu: non daude agintariak gehiegikeria hauek saihesteko?". (...)

Bidasoako erreteneko langileak bezala, Baztango auzokideak ere antolatuta ziren. Elizondoko UGTk Iruñea karrikan izaten zuen egoitza, eta bere esku afiliatu-multzobate izaten zuen, Francisco Olaechea buruan eta Ignacio Uriarte 1935eko idazkaritzan. Atal baztandar honek hurrengo udal-bozketan langileen hautagai eta hautetsu-funtsetarako 50 pezeta eman zituen. 1933. Urtean Arte Grafikoen Federazioarekin batera herrian garrantzizko mitina antolatu zuen, non Iruñeko eta Donostiako adiskideek parte hartu baitzuten, Nafarroako UGTko Idazkari Nagusia, Erratzun jaioa, Ricardo Zabalza, eta Espainiako UGTko zuzendaritza-batzordeko kidea, Ramón Lamonedak, buruan.

Urtebete lehenago, ¡Trabajadores! astekariko zuzendariarekin, Gregorio Velascoekin, eta Iruñeko Udaleko zinegotzi sozialistarekin, Corpus Dorronsororekin, Ricardo Zabalzak Almandoz, Elizondo eta Donezteben egindako mitinetan parte hartu zuen. Julia Alvarez, Tiburcio Osácar eta Juan Arrastiak Etxalar, Lesaca eta Beran UGTk egindako ekitaldietan parte hartu zuten. 1933ko abenduaren 3an, igandean, erakunde errepublikar eta sozialista guztietako antolatzailerak zena, Liborio Taberna Crespo, zendu zuen Donezteben. Gure astekariak, ¡Trabajadores! izenekoak, zera idatzi zuen: "Urte anitz iraganen dira Bidasoako erreteneko langileen artean bere izena ahazteko". Urte anitz iragan dira eta Bidasoako eta Baztango bailarako langileek ziur-

ki ez dakite 30eko hamarkadan auzokide-multzobate erabaki zuela UGT antolatzea bere lan eta giza-eskubideak defendatzeko. Ez dakite nehorik ez dielako deus erran. Erregionalismo atzerakoia ez die nehoiz kontatuko, ezta euskal nazionalismoak ere. Agian haizegoak, artaburuak lehortzen dituen haizeak, kontakizun zaharrak ekarriko dizkigu, non langile euskal-nafarrek, hori izateagatik, Bera, Doneztebe eta Elizondoko Unión General de Trabajadores Espainiako sindikatuaren atalak sortu baitzituzten.

RICARDO ZABALZA, BAZTANDAR SINDIKALISMOAREN ISTORIKO BAT

Ricardo Zabalza Elgorriagako Erratzun jaioa zen, Baztango herritxoa, 1989ko urtarrilaren 29an. Magisteritza ikasketak bukatu ondoren Argentinara jo zuen, lehenengo Buenos Aireseko portuan lan egin eta ondoren maixu bezala aritu zen. 1930. Urtean Espainiara itzuli zen eta Jaccan bizi ondoren Iruñea joan zen. Une honetan UGTko Idazkari Nagusia hautatu zuten.

1934. urtetik Lurreko Nazional Federazioaren Idazkari Nagusia izan zen, baita 1934ko ekaineko greba antolatu ere. 1934ko urtarriletik 1937ko urrira Idazkari Nagusiko ondokoa izan zen eta 1938ko urtarriletik 1939ko apirilera Espainiako Konfederal Komisio Exekutiboko bokaia.

1934ko iraultzaren ondoren gartzelatu izan zen eta 1935era arte gartzelan izan zuten. PSOEko Federal Komisio Exekutiboko partehartzailea izan zen eta Badajozko diputatua.

1936ko uztailaren 18ko militar altxamenduak Madril harrapatu zuen eta Mendiko Kuartelaren hartzean partehartu zuen. Gerorako Badajozera jo zuen "Pedro Rubio" batailoia antolatu zuelarik. Valentziako Gobernadore Zibila izendatu zuten 1937. Urtera arte. Handik aurrera nekazari-kooperatibismoari bultzada bat emateari ekin zion, Nekazari-Kooperatiben Kongresua eginez eta ondoren Nekazari Zentral Bata-suna eratu zuten (UCCA).

Gerra Zibilaren ondoren Alicanteko portuan atxilotua izan zen eta Albaterako kanpotik pasa eta gero, Polierren gartzelatu zuten 1940ko urriaren 24an fusilatua izan arte. Bere biografian, Pablo Iglesias Fundazioko artiboak utzitakoak, bere lagun Justo Sánchez Amutiok zera dio: "Gau izugarri batean, beretzat haunditasun harrigarri batez bete, anaitasun ideia batengatik zorian zegoela, bere fusilamendua aurretik zuen. Eta Madrilgo goiz hotz hartan, minez eta doluz jantzitakoa, lagun batzuk bere gorpua hartu eta Ekialdeko hilerria eraman zuten. Bere gorpuztean, badel odol-arrosak; bere hilobian, beti lore gorriak".

Martin Zabalza Arregui

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2003-01-21

«Baztango herrietako alkateek dituzten aukerak arras mugatuak dira. Balleko instituzioak krisi larrian daude. Egoera horretan ez dut uste ni nintzenik hautagairik egokiena, hobe izanen litzateke beti Elizondon bizi izan den norbait agertzea... Dena den, Elizondoko gorabeheretaz jakitun naizela uste dut. Baina berteze hautagairik ez zegoenez, nire borondatea agertu nuen».

Michel ERASO
Elizondoko alkate berria
D. Navarra 2003-01-21

«Baneston hagitz ongi nengoen. Talde ona da eta gainera etxekoa. Zaila suertatu zait inork eman nahi ez zidan aukera eman zidan jendea uztea eta horregatik beti eskerrak emanen dizkiet. Baina behin bizitzen da eta guziok ditugu betetzeko ametsak eta asmoak. Italian korritzeko nuen ametsa betetzeko aukera ikusi dut, Juanma Garate nire lagunik onenarekin egiteko, gainera».

Patxi VILA
Berako txirrindularia
D.Noticias 2003-01-27

• 11 GALDERA LABUR •

**Ramy MEBARKI** *Goizuetako tuareg-ker Aijer-a*

Goizuetan bizi den algeriarra edo Algeriatik etorritako goizuetarra?

Kanpotik etorritako goizuetarra sentitzen naiz.

Zein egoeratan dago tuareg etnia?

Lau taldetan sakabanatuta gaude, eta gure arteko arazoezin gainera.

Eta zein estatutan bizi dira taldeok?

Niger-en kel Aiar-ak daude; Malin kel Adarar-ak, nere taldekoak, kel aijer-ak aegia batzuk Libian daude eta besteak Algerian; eta azkenik, kel aha-gar-ak. Hauek ere Algerian bizi dira.

Egia al da tuareg-ak gerrero bizkor-rrak zaretela?

Hori Frantziak sortu eta zabalduko mito eta estereotipo bat da.

Zer ikasketa dituzu?

Etnologia ikasi nuen eta injenieritza elektrokia eta informatika ikasketak baditut.

Nabaritu al duzu herrian kanpotarra

edo beltza zarelako bazterkerarik?

Bazterketa ez, baina laguntzarik ere ez. **Euskaltegian ere bazabiltza. Nola moldatzen zara euskaraz?**

Hobe, baina oraindik asko daukat ikasteko.

Hiru urte daramazu hemen. Zer iritzi duzu Euskal Herriko egoeraz?

Identitatea duen herria dela konturatu naiz, baina norabide egokiaren bila dabilela iruditzen zait.

Parekotasunik ikusten al duzu tuareg-en herria eta Euskal Herriaren artean?

Bai. Bi herriek tinko eusten diote beraien kulturari eta hainbat ezaugarriari.

Algeria-Paris-Goizuetara... hemen bukatu al liteke zure ibilbidea?

Familia bat badut hemen eta ez dut pentsatzen oraingoz inora joatea.

Ahal bazenu, zer eramanen zenuke hemendik zure lurraldera?

Esku pilotako teknikak eta txalaparta.

G U T N T I T L E
I C H E
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE
ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

BEINTZAko
OSTATUA

☎ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

PIKABEA
Molinero drogerian
galdetu

pinturak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

ZJ
Zalain
jatebrea

☎ 948 630 014 • Tel. 948 63 09 67
Bera - Nafarroa

KULTURA

Nafarroako Haur Kantari txapelketan parte hartzeko epea zabalik

Kanporaketa saio bat Doneztebenn egingen da martxoaren 29an

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkartek, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz, Nafarroako Haur Kantari Txapelketaren bertze edizio bat antolatu du, ikasleei euskal kantagintzaren aberastasuna ezagutarazi eta haiengan euskaraz kantatzeko zaletasuna sustatzeko helburuz.

Txapelketak bi kategoria ezarri ditu: "Txikiak", 1992tik 1996ra bitartean jaiotakoak; eta "Gaztetxoak", 1988tik 1981era bitartean jaiotakoak. Lau kanporaketa izanen dira, martxoan egingen direnak, eta bertzetik finala, apirilaren 6an jokatzekoa dena.

**FINALA IRUÑEAN
APIRILAREN 6AN**

Lau kanporaketak arratsaldeko 17:00etan egingen dira ondoko egun eta tokietan: martxoaren 8an, Bianako kirol-



ARTXIBOKOA

Urteak daramazkite inguruko neska-mutikoak haur kantari txapelketan parte hartzen. Argazkian, Berako Labiagako ikastolako ttipitarriak 1998an.

degian; martxoaren 15ean, Irunberriko Zinematokian; martxoaren 22n, Burlatako Regina Pacis Ikastetxean; eta martxoaren 29an, Doneztebeko Bordatxo Aretoan. Finala Iruñeko Gayarre Antzokian jokatuko da heldu den apirilaren 6an, goizeko 11.00etan.

Lehiaketa zabalik dago Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako haur eta gazte guztiendako, beraz, eskolaurrekoek ez dute parte hartuko. Baldintza bakarra euskaraz kantatzea da. Ikasleek bakarlarri gisa, bikoteka edo taldeka (hiru kideetik 15era bitarte-

an) parte hartu ahal izanen dute, kantu bakar batekin, berria nahiz tradiziokoa, gehienez lau minutukoa izanen dena. Ikastetxe bakoitzak gehienez lau ordezkari bidaltzen ahalko ditu, kategoriatan bakoitzeko bi. "A capella" edo musikaren laguntzaz abesten ahal da, baina epai-

leek kantuaren kalitateari eta interpretazioari lehentasuna emanen diete beren baloraketan. Puntuak emateko tenorean zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola doinua, hitzak, ahotsa, teknika eta interpretazioa. Kategoriatan eta modalitate bakoitzean sailkatzen diren lehen biak sarituak izanen dira. Epaimahaiak honako osaketa hau izanen du: Arantxa Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakaslea; Mikel Juaniz, Barañaingo Musika Eskolako irakaslea eta La Pamploresa bandako kidea eta Amaia Zubiria abeslaria.

Izena emateko epea otsailaren 21a arte zabalik egonen da (948 141812 telefonoan). Ezinbertzekoa da kantuaren hitza eta partitura antolatzaileei igortzea posta elektronikoz (euskalkultur@terra.es) edo ondoko helbidera: Descalzos kalea, 50, 31001, Iruñea.

OKANE

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

Kanttonberri 4
Tfnoa: 948630018
BERA

Dr. Guy Randé
Odontologoa

Kontsultak
Astearte, ortzegun
eta larunbat
arratsaldez

**LARUN
HORTZ
KLINIKA**

Tel: 948 631057 • San Esteban 21 • BERA

LESACA

BERA

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak Lankidetzara hitzarmena sinatu dute

300 euroko kuota ordainduko du aurten Herriko Etxeak

Amaia eta Ainhoa

Kultur ekintzak egiteko hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 27an Berako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak. Akordiararen bidez Berako Udala Eusko Ikaskuntzaren Bazkide Ongile bihurtuko da, eta aurten 300 euroko kuota ordainduko du.

Hitzarmenaren helburua Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren artean adosturiko kultur ekintza desberdinak antolatzea da, bertzeak bertze erakusketak, dokumentazio zentroak, jardunaldiak eta solasaldiak. Eusko Ikaskuntza 1994. urtean hasi zen gisa horretako hitzarmenak udalekin sinatzen eta Bera da Nafarroan Lankidetzara Hitzarmena sinatu duen hirugarren udala. Sinatzaileek Nafarroan gisa horretako hitzarmenek duten garrantzia nabarmendu dute, herrialdearen egoera dela-eta.

Hitzarmenean sinatutakoaren arabera, Eusko Ikaskuntzak bere argitalpen bilduma osoa eta urtero argitaratzen dituenak eskainiko dizkio dohain Udalarari hitzarmenak irauten duen bitartean. Gaine-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Altzateko elizaren teilatua eta aitzinaldea moldatzeko lanean ari dira.

ra, Eusko Ikaskuntzak antolatzen dituen kongresu, jardunaldi eta ikastaroetara, Udalak lagun bat bidali ahal izanen du, eta inskripzioan %25eko beherape-

na izanen du. Azkenik, bierakundearen artean hitzartuko duten kultur ekintza prestatuko du Eusko Ikaskuntzak urtean behin Beran.

Sinadura ekitaldian,

Josu Goia Berako alkatea eta Sixto Jimenez Muniain, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehen-dakarioidea izan ziren, Jon Abril kultur koordinatzailearekin batera.

INGURUMENA

Tecnopet lantegiak sortzen dituen soinuengatik ez du kalteordainik ordainduko Berako Udalak

Tecnopet enpresak sortzen dituen soinu eta bertze kalteengatik kexu zeuden borts bizilagunek ez dute Udaletik kalteordainik jasoko. Bidasoa karrikako bizilagun horiek 30.050 euroko in-

demnizazioa eskatzen zuten, lantegiaren hurbiltasunak eta egiten duen lanak sortzen dien molestiengatik. Eskaria egiterakoan, beraien etxebizitzaren ondoan dagoen lantegiak buila handia

sortzen duela zioten bizilagunek, eta gainera, tresneriaren funtzionamenduak dardariak sortzen ditu lur zolan. Baina Udalak indemnizaziorik ez ordaintzea erabaki du, arazo hauek dextente moldatu direlako eta gehiago moldatzeko isolamendu lanak egiten ari delako Tecnopet.

FLASH

Udal zergak ordaintzeko epea

Urtarrilaren 27tik martxoaren 3ra arte zabaldua dago 2003. urteko jardueraren ekonomikoaren gaineko zergaren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premia-mendu errekarua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

Iñude eta artzaiak

Aurten 25. urtea betetzen du konpartsak eta zerbait berezia egin asmotan dabilta. Horretarako bilera otsailaren 7an egingen da lamotenean 20:00etan.

Eski irteera otsailaren 22an

Agerra mendi taldeak Luz Ardidenera eski bidaia antolatu du otsailaren 22rako. Izen ematea 617 23475 (Luis M^a) edo 677 559436 (Zubieta) telefonoetan egin behar da. Autobusaren irteera ordua izena ematean jakinaraziko da.

TEL K
K MISET K
ISE
K MISKE
N HI UZUNK U U, NEU I ET (SEINO) ERIN
Ezt r z h T l- F X 3 15 21

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

© 948 6311462
Altzate I • BERA
Xirail

LESAKA

Edateko ura ez dela inoiz txarra izan jakinarazi du alkateak

Batasunak urteko lehen batzarrean egindako galderari erantzunez

Aitor AROTZENA

Joan den urteko azaroaren 28an Osasun Publikorako Institututik jasotako idatzi batek herriko edateko ura ez zela ona eta kontaminazio fekala somatzen zela agertzen zuen. Arrisku honen aitzinean neurririk hartu ote zen galdetu zuen Batasunak urteko lehen batzarrean. Alkateak jakinarazi zuenez, arazoa izan zen egunean konpondu zen. Izan ere, «*bi deposito daude herrian eta arazoa konpontzeko aski da depositoz aldatzea*». Alkateak kolaborazioa eskatu zien arazo hau sortzen duten biztanleei, «*herriko ura zein etxek kontaminatzen duten badakigulako eta orain dela denbora aunitz abisatu zitzairen. Arazo hau euria kolpean egiten duenean izaten da*».

Oihanberritze lanak

Domiko eta Elosegi inguruetako oihanberritze lanak Berdabio Basogintza enpresak eginen ditu. Domiko inguruko oihanberritzearen aurrekontua 41.477,49 eurokoa da eta Elosegi-koa 69.286,42 eurokoa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Garai bateko karmeliten konbentuan Kultur Etxea eta liburutegia egiteko aurreproiektua aztertzeko bilera batean bildu dira Herriko Etxea, guraso elkarteak eta herriko zenbait kultur talde. Liburutegia, 300 lagunentzeko lekua izanen duen aretoa eta museo bat ere paratzeko asmoa dute, nahiz eta eraikinaren egitura ezin den sobera ukitu.

KIROLA

Beti Gazteko neskek denboraldiko lehendabiziko garaipena lortu dute


Bada errana, lanak bere ondorioak ematen dituela. Horrelako zerbait erraten ahal dute Beti Gazteko neskek. Kontxako hondartzan aritu ondotik, joan den denboraldian hasi ziren futbol zelai handian jo-

katzen, Juana Aleman eta Idoia Etxepare entrenatzaileen erranetara. Denboraldi osoan ez zuten punturik lortu. Aurtien ere gol sorta handiak jaso dituzte, baina pixkanaka ikasten ari zirela aipatu dugu behin

baino gehiagotan. Duela hilabete batzuk lortu zuten lehen puntua, hutsa berdindu ondotik. Oraingoan, berriz, lehendabiziko garaipena dugu aipagai. Urtarrilaren 26an lortu zuten Añorgan 2-3 irabazita. Seguru gaude ondotik gehiago ere etorriko direla.

Lesakarren arteko finala

Pilota profesionalean ez zen inoiz herritarren arteko finalik jokatu. Bada, Zintronikon jokatu zen Canal 67 Torneo finlean Garrido eta Jexux Mari Almandozek 22-15 irabazi zieten Otaegi eta Tabernari.



PERTSONAIA

Javier TELLETXEA

Nafarroako Kutxako Planifikazio zuzendariorde berria

Javier Telletxea Txoperena, 50 urteko lesakarra, Nafarroako Kutxako Planifikazio eta Administrazio saileko zuzendariorde nagusia izendatu dute. Ikerketa zerbitzua, aurrekontuen kontrola, kontabilitate orokorra eta estatistika eta erakunde ofizialekiko harremanen arduraduna izanen da. Aurrezki erakunde aurrekontuen eta estrategiaren planifikazioa eta administrazio berrte funtzioak ere bere esku izanen dira. 2002ko martxoaz geroztik, Planifikazio eta kontrol saileko zuzendaria zen Telletxea.

kixkura
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANNA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZABAI JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

«**USOA**»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Telefono Gida 2003 prestatu du Euskara Batzordeak

Leire Olagarai eta Miren Olaetxea patinaje ikastaroko irakasle berriak

Joseba eta Nerea

Duela bi urte Euskara Batzordeak herriko etxe guzien izenak, zenbakiak eta telefonoak biltzen zituen argitalpena ateri zuen. Gisa horretan, betiko listinera jo beharrean, telefonoak modu argiago batean ikusteko aukera eman ziguten herritar guziei. Eta ez hori bakarrik. Jakinik ohitura handiagoa dugula etxeen izenarengatik zuzentzea jendeari, abizenagatik baino (Bekoetxeko Benantxio, Xuaxiko Bordako Mariasun, Aldalurko Asier...) Euskara Batzordekoek ahalegin berezia egin zuten horretan eta etxe-ko telefonoak abizenen arabera ordenatuak egon beharrean, etxeen izenen arabera ordenatu zituzten telefono guzikiak.

Baina azkene-ko bi urte hauetan

herrian etxe berri aunitz egin dira eta jende andana etxez aldatu ere bai. Horretaz, aitzineko Gida zahartua gelditu da eta berria prestatu dute Batzordekoek. Joan den irailetik ari ziren lanean hilabete honetan gure etxeetara ailegatuko zaigun Gida berri honekin. 735 euroko aurrekontua izan duen liburuxka 16 orriz osatua dago eta 500 ale argitaratuko dituzte. Udaletxea egingen da gastuen kargu.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Etxfalartarren muserako afizioa ortziral arratsero erakusten da Herriko. Argazkian ikusten duzuen bezala, umore onean biltzen dira aldiro herriko nahiz kanpoko hainbat gazte, trago batzuk edan bidenabar ahal bada behintzat sarearen bat irabaztera. Musa gustoko duzuenak animatu zaitetzte, merezi du eta!

Irakasle berriak patinaje ikastaroan

Urte mordoska dira Guraso Elkarte etxalarren patinaje ikastaroa antolatzen hasi zela. Lehenbiziko urtetan Lesakatik etortzen ziren irakasleak (Mari Sol Irigoien eta Jabier Iantzi) eta hauek urte batzuk egin ondotik Jabier Arribillaga herritarrak hartu ziren errelebo. Honek ere urte andana egin zuten lan honetan baina aurten bi neska gazteri utzi die ikastaroaren ardura. Leire Olagarai eta Miren Olaetxea dira ira-

kasle berriak. Erran ditudenez, «Guraso Elkarte-koek proposatu ziguten patinaje ikastaro hau aitzinera ateratzea eta gu ere urte aunitzez ibili garenez, ez zitzailgun batere kostabazkoa ematea. Lan polita iruditzen zaigu eta momentuz behintzat gus-tora ari gara». 4 urtetatik 12 urte bitarteko 32 haur dituzte eta bi txandatan ibiltzen dira. 11:00etatik 12:00etara ttikienak eta 12:00etatik 13:00etara koxkorragoak. Larunbatetan biltzen dira herriko frontoian eta irakasleek kontaktukoaren arabera,

«patinen gainean egin daitezkeen joku eta ariketa desberdinetan ari-tzen gara. Baina haur guzietan gustokoena dutena hockeyean jokatzeari izaten da».

Akatsak zuzenduz

Aitzineko TTIPI-TTAPA alean jarri genuen Larururuko partxis txapelketan Mertxe Santesteban eta Mari Ameztói izan zirela irabazleak eta ez da zuzena. Mertxe Santestebanek Marta Maia izan zuen bikotea eta ez Mari. Bar-katu gaizki paratutakoak.

**KOXKILA
OSTATUA**
Berrito mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

LOREDENDA

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESACA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazi _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____

Egunero bitxia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
TSYATU - JATETxea

HERRIKO JATETxea, 11 • 948 63 70 30
Etxe • LESAKA

IGANTZI

Herria ezagutzuz

24 Hektarea landatzen ari da Nafarroako Gobernua Pagolan

Haritza izanen da gehien landatuko den zuhaitz mota

Oskar TXOPERENA

Aurtengo neguan egitea erabaki du Nafarroako Gobernuak orain dela sei urte Herriko Etxearekin hitzartutako landaketa. Orduan utzi zizkion Herriko Etxeak Pagolako egia eta Egi-beltz inguruko 30 hektarea bertan landaketa haundi hori egin zezan. 30 hektarea horietatik 24 landatzen ari dira, berteak dauden bezala uztea erabaki baitzuten. Gehien landatuko den zuhaitza aritza izanen da, baina bertze batzuetatik ere kopuru haundiak sartuko: geziondoak, urkia, eltxaurondoak, platanok... Bertako zuhaitzak izanik lanen ordainketa oso-osorik hartzen du bere gain Nafarroako Gobernuak. Aurrekontua 120.000 euro ingurukoa da, lehengo 20 milioi pezeta, eta para-jea herriaren pare-parean izanik ederki ikusten dira landatzeko pres-tatutako zuloen lerroak



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Sarrolako errepedearen gaineko aldean zeuden zuhaitzak bota egin dituzte azken egunotan. Aspaldi samarretik arront hondatuak zeuden, barrenetik ustelduak. Orain dela zenbait urte beheko aldekoak ere kendu egin zituzten eta argazkiaren ezkerreko aldean ageri direnak paratu. "Acer" izeneko zuhaitz horiek berrogeita bortzen bat urte egin dituzte zutik, Herriko etxeak 1957an paratuak baitziren. Urte berean egin ziren fabrika ondoan bide laistererako erabiltzen diren eskailerak ere.

eta landaketen inguru-ko itxidurak.

Arkupeko kideen besta otsailaren 14an

Garai honetan izaten dute Arkupeak Elkarte-ko Igantziko bazkideek

urteroko besta. Aurten-goia heldu den astean ospatuko dute, otsailaren 14an. Egitaraua ere ez dute batere aldatu. Eguerdiko ordu batetan hildako kideen oroime-nezko meza izanen du-te, eta ondotik La Villa

jatetxera bilduko dira bazkaltzera. Ondotik dantzaldia izanen dela ere agindu dute zabal-dutako oharretan. Joan nahi duenak otsailaren 6rako eman beharko du izena betiko lekuetan, 24 euroren truke.



Sarrolako paretak

Sarrolako paretak ere hainbat komeri bizi izan zituen behar bezala egin baino lehen. Errepidea egin aitzinetik bide arrunta izaten zen Sarrolakoa. Errepidea egiteak, ordea, bide zabaltzea eskatu zuen, eta inguruan malda haundia zegoenez, azpiko aldetik gaur egun ezagutzen dugun seiren bat metroko garaiera duen paretak egin behar izan zuten. 1891ko udazkenean hasi zuten paretak Ramon Etxeberria. Idatzi honetan ikusten ahal den bezala, ez zuten zortetik izan, eurite haundiak egin baitzituen tenore hartan: «*a consecuencia de los temporales de agua de los días 23, 24 y 25 de octubre último, se derrumbó parte del muro*». Altxatu egin zuten berri eta bigarren batean ere erori egin zitzaizen. Azkenean Diputaziotik Ascunce zeladorea bidali behar izan zuten paretaren obrak zuzentzeko. Harririk haundienak Miauriko errekatik ekarri bazituzten ere, agerian dagoen harri xehe gehiena eroritako Arbitza etxetik ateratakoa da. Azpiko aldeko paretak ttikia edo petrila beranduago egin zuten, 1920an.

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

Lanchas
 PARKETAK - TARIKAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
 ESTALDURA OROKORRIK
 Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ARANTZA

Iñauterietako mozorrotzeko egunen prestaketa bidean da

Nafarroako Gobernuaren erasoer aurre egiteko idatzia sinatu du alkateak

Nerea ALTZURI

Herri aunitzetan ez bezala, iñauteak goizago izaten dira Arantzán. Momentuz egitarauaren gaineko aunitzik ez dugu jakin, baina iñauteak otsailaren 13tik 16ra izanen dira.

Ohiturak erakusten duen moduan, mozorro xurién puxka biltzea, musika, mozorroak eta bestarako gogoia izanen dira aurtén ere iñautien osagaiak. Ea hurrengo alean guziaren errepa-soa egiten dugun!

Alkateen idatzia

Bolada haundian, Nafarroako Gobernuak euskararen eta herriaren nortasunaren kontrako erasoekin segitzen du hainbat arlotan: komunikabideetan, administrazioan, irakaskuntzan... Sinbolo edo lkurren legea garatze aldera, balkoietan ikurriña duten Herriko Etxe-ei diru laguntzak kentzeko mehatxua egin zuten UPNko Gobernuak;



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENAI

Eskola barren eta kanpoan lan batzuk egin edo egiten ari dira joan den urte akabailatik. Kanpoko paretak margotzen ari dira.

Foru Gobernuak ikurriña Herriko Etxeko balkoietan debekatzeko erabakia du.

Joan den ilbeltzaren 18an, Leitzañan eginiko ekitaldi batean, gure herriaren nortasunaren kontra egiten ari diren erasoer aintzin egiteko Nafarroako hogeitalau alkatek idatzia sinatu zu-

ten. Herriko Etxea bat izan eta alkatea den Jose Ramon Amoros Oskotz ere sinatzaileen artean izan zen.

Bortzirietako pilota txapelketa

Joan den igandean jokatzekoak ziren udal pilotalekuan Bortzirietako eskuz banakako bi-

garren pilota txapelketaren finalak. Herriko ordezkariak ere bazen: Haurrak B mailan Ander Almandoz aritzekoa zen; haurrak mailan Unai Iparragirre, kimuak mailako bi finalak arantzaren artekoak ziren: Bmailan Jon Altzuri Josu Larretxearen kontra eta A mailan Joseba Ma-

FLASH

Hilerria handitzeko lanak

Bada denbora puska kanposantua handitzeko egitasmoa gauzatu ahal izatea pentsatu zenetik. Udaltxearen hondarreko iragarpenari erantzunez, lau proposamen izan dira. Sasoi Eskabazioak S.L. enpresak eginen ditu obra hauek.

Oihan probetxamendua

Apitta alderdiko 394 haritz amerikarrez osaturiko eremua, Maderas Erkizia Lesakako enpresak hartu du. 17.415 euro pasatotan bere gain hartu du oihan aprobetxamendua.

Zinegotzi kargu uztea

Jesus Maria Isuskitza Urzelaia Herriko Etxeko zinegotziak kargua uzteko eskaria egin du. Joan den urtarrilaren 22an eginiko udal batzarrean onartu zen Isuskitzaren erabakia. Orain bertze zinegotzi baten kargu hartzeko prozesua abiatu du udalak.

dariaga Imanol Mitxenaren kontra. Hurrengo alean emanen dugu emaitzen berri.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

© 948631076 • BERA

Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

• 250 lagun eserita
• Klimatizatua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

DONEZTEBE

Haurtzaindegia eskatuz sinadura bilketa egiten ari dira gurasoak

0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzenduko litzateke

ttipi-ttapa

Donezteben, 0 eta 3 urte bitarteko umeendako haurtzaindegia eskatuz sinadura bilketa kanpaina hasi dute herriko gurasoek eta interesa duten batzuk. Zerbitzu hau Malerrekako Mankomunitatearen bitartez bideratzeko asmoa dute, Doneztebe-koendako ez ezik, erreka osoko haurrentzat baliagarria izanen dela uste baitute. Talde honen egindako ikerketaren arabera Donezteben hamazazpi haur sortu berri daude edo aurten sortuko dira. Gainera, bertze aunitz zerbitzu honetara biltzen ahal dira. Orain arte banatu dituzten orriak bete egin dira eta horrek erakusten du jendeak interesa baduela.

Hilerria handitzea

Hilerria handitzeko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak, Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean.



Ez zuen liga hasiera txukuna egin Erreka eskubaloia taldeak, baina urte hasierako bi garaipenekin jautsiera postuetatik urruntzen ari da.

37.075 euroko aurrekontua du proiektuak eta Nafarroako Gobernuak 25.979 euroko dirulaguntza emanen du. Gaur efungo kanposaindu ondoan 150 metro koadroko lekua moldatuko da, zola berrituko da eta ingurua paretarekin itxiko da. Etorkizunean, proiektuan sartuak ez dauden 72 hilotzako eremua ere prestatuko dute.

Ezkurra eta Lizaso finalerdietan

Hasierako fasea jokatu ondotik, binakako erremon-te txapelketa nagusiko finalerdietan aritzeko txartela lortu dute Iñaki Lizaso eta Koteto Ezkurra erremon-telari doneztebarrek. Lizasok Iñigo du lagun aitzin koadroetan eta Ezkurra Urkorekin ari da. Biek ere nahiko aisa lor-

tu du finalerdietara sartzea.

Musika Eskolari dirulaguntza

Hezkuntza Sailetik 1.100 euroko dirulaguntza eman diote Doneztebeko Agorreta Musika Eskolari, musika hezkuntzako ikastaro arautuetara sarbidea ematen duten prestakuntza programak eskaintzeagatik.

MALERREKA

Donamariako iñauteriak asteburu honetan

Donamariako iñauteriak aste hondar honetan, otsailaren 8 eta 9an ospatuko dira. Larunbatean bazkaria, eskea eta afaria izanen dute Ageralde akordeolariarekin. Igandean bazkaria izanen da eta arratsaldean txokolatada.

Saldiasko telebista antena

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak moldatze lanak eginen ditu Saldiasko telebista antenan. Telefonía enpresa berriei lekua eman nahi zaie lan hauekin, horretarako, ingurumen- inpaktua sortzen duten antena berririk egin gabe. Lanen aurrekontua 43.287,86 eurokoa izanen da.

Baztan-Bidasoko areto-futbol txapelketa

Igande honetan hasiko da Erreka elkarteak hamekagarren aldiz antolatutako Baztan-Bidasoko areto futbol txapelketa. Aurten 22 taldek eman dute izena, 10 Baztangoak, 5 Malerrekakoak, 3 Bortziritakoak, 2 Bertizaranakoak eta 2 Leitzaldekoak. Lau multzo osatu dira, bi sei taldekoak eta bertze biak bortze-koak. Multzo bakoitzeko lau lehendabizikoak sailkatuko dira bigarren faserako. Hemen ere lau multzo eginen dira launa taldekoak eta bi lehendabizikoek izanen dute final laurdenetan jokatze-ko aukera. Hortik aitzinera kanporaketak izanen dira.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



ABELZAINZA

Behi ume hazleei ematen zaien primaren aurrerapena ordaintzea eskatu du EHNEk

Lehenbailehen egitea eskatu dio Nafarroako Gobernuari

ttipi-ttapa

EHNE sindikatuak Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza saileko arduradunei Nafarroan dauden 1.500 abeltzain inguruei lehenbailehen Nekazaritzako Politika Bateratuaren, hau da, PAC delakoaren laguntzen aurrerapena ordaindu diezaien eskatu dio. Hain zuzen, behi ume hazleari eta aretzei bideratzen ditu Bruselak aipatu diru laguntzak. Azken urteetan abenduaren erdialdean jasotzen zituzten abeltzainek, aurten berriz, hilabete osoa gibelerratu dituzte eta abeltzainek urtarrilaren bukaeran laguntzen zain segitzen dute. Gainera, EHNE-k gogorazten dio UPN-ko Gobernuari Europako legeriak laguntzen ordainketak aitzintzea onartzen duela. Diru laguntza hauek Bruselak ematen ditu Nafarroako Gobernuaren birtartez, eta honek bideratu behar ditu. Azken urteetan, behi abeltzainek abenduaren erdialdean jaso izan dute laguntzaren %60ko aurrerapena. Behi haragiko OCM-ek edo Merkaturako Erakunde Bateratuak ezartzen ditu kopuruak.

EHNE-k gogorazten du abeltzaintzako kostuak erabat igotzen direla neguan eta urte bukaeran, eta gainera

esplotazioek ekonomia aurrekontuak diru laguntzen arabera antolatzen dituztela; beraz, atzerapen tikiak esplotazioen martxan eragina handia izaten du.

Nafarroako abeltzainek 2002ko martxoan eskatu zituzten laguntzak. Beraien betebeharrak orain, dirulaguntza jasotzen duten behiek sei hilabetez granjen barrenean mantentzea da. Baldintza hau Europako legeak eskatzen du, erretentzio epea da eta bitartean, kontrol administratiboa eta landa ikuskapenak egiteko aukera dute Gobernu teknika-riek.

Ikuskapen hauetan legearen kontrako zerbitzu agertzen ahal da. Honengatik, abeltzainek ez dute diru laguntza jasotzen eskatzen duten urte berean; hala ere, sektoreak laguntzak behar dituzenez jarraitzeko,



ARTXIBOKOA

Eskariak azaroa baino lehen egn dituztenei ordainduko zaie lehenik.

Europako legeak laguntzaren aurrerapena urtearen buruan izatea onartzen du.

Adierazpen hauen aitzinean, Nafarroako Gobernuak jakinarazi du Nafarroa dela behi abeltzainei aurrerapena ordaindu dizkion komunitate autonomo bakantakoa, baina aurten ez dela egin zenbait arrazoiengatik. Horietako bat, Europako araudiaren aldaketa izan da. Horren arabera, produktore berak aurkeztu dituen eskaera guzietan izaten ahal diren gorabehera guziaz kontuan hartu behar dira. Horregatik, abenduaren 31 arte aurkeztu diren aretzeen primak eta urtarrilaren 1a arte aurkeztu diren hiltzeko pri-

mak kontuan hartu behar izan dira. Beraz, urtarril bukaerarako aurrerapenak egiten zituela jakinarazi du Nafarroako Gobernuak. Behi ume hazleen prima aurrerapena buruko 120 eurokoa izan da, eta aretzeena 84 eurokoa. Aurrerapen hau, eskariak azaroaren 1a baino lehen egin duten produzitzaileei emanen zaie. Geroztik aurkeztu diren eskariak, kontrolak egiten diren neurrian ordainduko omen dira.

FALTA DIREN ARTZAINEI OTSAILA HASIERAN

Ardi sektoreari dagokionez Nafarroako Gobernuak azaldu du PAC-eko 2002ko laguntzak ordaindu die-la artzainei, baina 37 ar-

tzain, otsailaren lehen astean egiten diren ordainketen zain daude oraindik. EHNE-k azpimarratu nahi du artzainek legeak eskatzen duen guztia bete dutela, baina administrazioa ordainketak gibelerratu da arazo burokratikoengatik.

Okindegia
Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artissua, egunekoa eta txapata

JATETXEAN

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilak erretako jakietan

Enlargatuz gero, bidetia ogi-lanaren erret, (jara-groa)

Ordaki industrialdea - Tfno: 948 45 34 02 - 31113 ARIZKUN

PAGOLA

TXISTORRAREN IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

EZKURRA

Komentzenea itxi ondotik ostatu bakarrarekin gelditu da herria



Udaletxeko pisua errentan eman zaio Cruz Etxeberriari

Peio ZESTAU

Komentzenea ostatua itxia dago urte hasieratik. Obra batzuk egitea eskatzen zioten irekia mantentzekotan, beste komun bat jartzea, eta beste. Baina nagusiek lan gehiegi zela pentsatu eta itxi egin dute. Honela, ostatu bakarrarekin gelditu da herria. Betiko ostatua izan da Komentzenea eta bistan da, negozio ti-kientzat ez dagoela errukirik. Joan den urtean Barbenea denda itxi zen, aurten ostatua...

Udaletxeko pisua

Udaletxearen gaineran, lehendabiziko solairuan, bi pisu daude. Lehen bat errentan hartua zuten, eta orain bigarrena eman zaio, Cruz Etxeberriari. Hilabetean 90 euro ordainduko du eta bi urtetarako izanen du, momentuz. Udala eta bera ados egonez gero, lau urte arte luzatzen ahal da.

Iñauteriak

Gazteek antolatzen dute iñauteriak. Ostira-lean afaria izan zuten Barrankan, Jaione Olazabaltrikitilari aresoarrarekin. Larunbatean etxez etxe eskean ibili ziren. Larunbateko afa-riarekin bukatu ziren iñauteriak. Udalak 300 euroko dirulaguntza eman du, gastuak estaltzeko.

EZ EN IK KEN U ZU E L N UEI
ur | Kutx k n n u C sk r zur tk



L nu r tr un r s r r n h r k k
Ez n r r k k n u z u r l n r u t z z u z 3 k C | untz n
sk r ur | Kutx r n t r t z ur r l r n z k m r x r n f t r t .
t z r n k t n r n u t u , l n t z r k h r n t n
t z l C sk r zur ur | Kutx n

NAFARR AK
RUR L KUTXA

SUNBILLA

Iñauterietako karroza ikusgarriak plazaratu dira aurtengoan ere

Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri zioten herriko koadrilek

tipi-ttapa

Eguraldi txarrari aurpegi ona paratu eta umore ederrean egin zuten Sunbillako iñautetan karroza desfilea.

Urtetik urtera karrozak aldatzen dira noski. Baina badira urtetik urtera errepikatzen den karrozarik ere. Horieta-ko bat da Hezur salda izenekoa. Azkeneko hemezortzi urtetan atera da eta 4000 litro saldaz gain, tortilla, gaztainak eta gazta, opilak eta ardoa ere banatzen dute

Beraien imajinazioa lanean paratu dute sunbildarrek bertze urte batez, bertakoei nahiz kanpotik etortzen diren bisitariari ikuskizun polita eskainiz. Erraterako, han zeuden garai bateko zerratzailak. Koadrila hau karrozak egiten hasi zirenetik duela 21 urte kasik urtero atera dute bakarren bat.

Beteranoan ez ezik, gazteak ere lanean ari-

tu dira. Neska gazte talde batek auto-txokea egin zuten. Eguraldi frexkoa eta euritsua izan arren, batzuk Andaluziako Apirileko feriara ere hurbildu ziren, Rociora, eta flamenko doinuak hedatu zituzten. Aktualidadeko gaiak ere plazaratzen dira, eta zerbaitek gaurkotasuna baldin badu, hori Prestige itsasontziaren hondoratzea eta sortu duen olio orbana, txapapote famatua da. Itsasontzi ederra eta txapapote biltzaile koadrila atera zen Sunbillan ere, Sunbilla Galiziarekin zioen autoaren gibeletik. Ez zen Prestige izan Sunbillara hurbildutako itsasontzi bakarra. Petroliontziko zikinkeria garbitzen lan eta lan aritu ziren batzuk, baina oportretan ederki egon ziren Ekliptse itsasontzian kruzeroa eginez.

Golf edo golfo txapelketa erakusten zuen



karroza, Sunbillako haurtxoen Txiki Parka edo Karibean ez estresatzeko egindako karroza ere ateri ziren. Erlijioak ere izan zuen bere tarte, Santiagoko katedralean, erromesendako meza eman baitzuten, botafumeiro eta guzi. Sermoi dotorea entzun ahal izan zuten Santiago Bidea egina zuten erromesek.

SAN FERMINETAKO ENTZIERROA

Negu giroa eta iñauterietan egon arren, uda parteko besta girora hurbildu ziren batzuk, Sanferminetako entzierroaren bitartez. Hiru zezenek arrisku handia sortu zuten altxaferoa aditu zenetik zezen plaza-rako bidean. Tartean



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI / D.NAVARRA

Handiak bezalaxe, eskolako neska-mutikoeek txapapote biltzailez jantzi ziren. Beheitian, Meza Santua Santiagoko katedralean.

zaurituak ere izan ziren, baina polizia foralak han zeuden laguntzeko.

Beraien mini dotorean zebiltzan monjak edo artzaia bere ardiekin, edo hobe erranda bildots ttikiekin, ere izan ziren ibilbidean.

Desfilearen ondotik, zerriaren eta bildotsaren zozketa egin zen. Joan den urtean bildotsa irabazi zuen Jorge Berauk aurten zerria etxeratu zuen. Bildotsa berriz, Mikel Arrietaren zat izan zen.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxes: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

EKAITZA

Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardoteqia jatetxea saqardoteqia

ITUREN - ZUBIETA

Eguraldi txarrari aurre egin eta urteroko harat-honatak egin zituzten joaldunek

Joxe Mari Olasagasti aizkolariak bere idi-pare bat eraman zuen Iturenera

tipi-ttapa

Euriak eta hotzak ez zituen Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen animoak itzali eta, xintxo-xintxo eutsi zioten aspaldiko urteetako ohiturari. Lehenik, bakoitza bere herrian ibili zen eskean. Iñautetako astelehenean, Zubieta eta Aurtizko joaldunek Iturenera bisita egin zuten, mozorroak ere «lanean» ari ziren bitartean. Joxe Mari Olasagasti aizkolari famatua idi-proben munduan sartua dabil orain, eta bere idi-pare bat ikusteko modua ere izan zen Iturenen. Azkeneko urteetako jendetzarik ez zen somatu herrian, eguraldi kaxkarrak ez baitzuen horretarako animorik piztu. Mozorroekin segituz, aurtengoan esperimentu berexi xamarra ikusteko modua ere izan zuten Iturenera hurbildutakoek. Azkeneko urteetakoek. Azkeneko urteetakoek. Azkeneko urteetakoek.

izan zuten, baina biek batera sartzerakoan zer gertatzen den erakutsi nahi izan zuten. Azeriak abudo hartu zuen izututako oiloa, baina abudo oiloa bezain izutua zegoen azeria ere, mozorroen zakarkeriarekin.

Biharamonean, euripean, Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita itzulizioten Zubietakoei. Iturenen bezalaxe, jende guttiago somatu zen Zubietan. Dena den, mozorroek eta joaldunek beraien lanean segitu zuten, batzuk bazterrak nahasten eta bertzeak joareak jotzen, alegia. Azken hauek itzuli osoa egin zutenean, piperopilak jaso zituzten indarbertzeako.

Asteazkena kontuen eguna izan zuten Zubietan eta Iturenen larunbateko afariaren ondotik egin zituzten kontuak. Aurtizen xaharren afaria egin zuten.

Iturenen Ameziako bidea moldatzeko dirulaguntza

Iturenen, Ameziako bidea moldatzeko lehen fasealaguntzako 78.116 euroko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean, 110.225 euroko aurrekontua duen proiektuarendako. Gaur egungo zolako zuloak estaliko dira eta gero sendotu egingen da. Bihurguneak zabaldu egingen dira eta hasierako zatian bidebazterra egingen da.

ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Zubietako joaldunak Iturenerako bidean. Eguraldiak batere lagundu ez badu ere, aurtien ere xintxo-xintxo egin dituzte harat-honatak, Ituren eta Auritzkoekin batera. Kontuak egin ondotik, heldu den urtera arte agurtu dira joaldunak.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

GOIZUETA

Larunbat honetan egingen da Umore Onako ohiko bilkura

Presidenteordea, diruzaina eta bokal berri bat hautatu behar dira

Esteban AROTZENA

Larunbat honetan, hilak 8, arratsaldeko 18:30etan lehenengo deialdian eta, horren beharrik balego, ordu erdi beranduago bigarrenengan, emanen zaio hasiera urtero garaitu honetan Umore Ona elkarteak ospatzen duen ohiko bilkurari.

Gai zerrenda ere horrelaxekoa da, ohikoa alegia. Lehen lehenik aurreko bilkurako akta irakurriko da, eta bigarrena baldin bada, onartu ere bai. Hurrenia iazko kontuen eta aurtengo aurrekontuen berri emanen da. Hauek eztabaidatu eta bozka-

tutakoan, bazkide berri izan nahi duten bi herritarrek elkatean onartzen diren ala ez erabakiko dute batzarrean bildutakoak.

Presidenteordea, diruzaina eta bokal bat dira bilkura honetan hautatu beharreko karguak. Hauxe da, hain zuzen, gai zerrendako bosgarren puntua. Jakina den bezala, hamar kidez osatutako komisioren erdia berritzen da urtero, baina beste biak komisiorek berak hartzen dituzte bazkideen zerrendatik. Gerardo Olo presidenteak zuzentzen duen batzordearen informazioarekin eta es-



ARTXIBOKOA

Umore Ona elkarteak hemezortzi urte beteko zituen joan den urteko abenduan Umore Ona elkarteak. Sorreran 99 bazkide zituen eta gaur egun 211 gizon-emakume agertzen dira zerrendetan.

kari-galderekin emanen zaio bukaera aurtengo bilkurari.

Joan den abenduan bete zituen 18 urte Umore Onak eta bere adin nagusira hagitzen osatutako ailegatu dela esan behar da. Aipagarria da 99 bazkide zituela inauguratu zenean eta gaur egun 211 gizon-emakume agertzen

direla zerrendan.

Traktoreen azterketa otsailaren 7an

Otsailaren 7an eta goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarteko orduetegian Irisarriko pilotaplazara eraman behar dira herrian azterketa pasatu behar duten traktore guztiak,

egun horretan etorriko baitira teknikoak Ibilbailuen Azterketa Teknikoa egitera.

Sutarako egur loteak

Sutarako egur loteak emateko asmoa du aurtengo Udalak. Interesatek hilabete bukatu bitarteko epea du izena emateko.

ARESO

Gainarbeko egur lotetara errexago ailegatzeko lanak egin dira Sasteneko putzu zuloan

Juana Mari SAIZAR

Lehenengo urteko eta aurtengo egur loteak Gainarbe mendian maratu dira. Sasteneko belaze ondoko putzu zulo haundia, hamaika zailtasun eman dituen egurra ekartzeko, garbitu dute. Ur bide berriak egin dituzte eta nobabait zola sendotu du-

te eta harri xehearekin estali nahi dute.

Katekisten formakuntza eta ikastaroak

Larraungo Azpiartzapez taldean, Aresoko parrokiaren barne, hainbat ekitaldi egingen hasi dira. Katekisten formakuntzarako otsailaren

8an Leitzako Apeztexean, 15ean Lekunberriko Apeztexean eta 22an Beteluko apeztexean, izpiritualitatea, teologia eta lagungarri diren teknikak jorratuko dira. 2003ko ezkonarrekiko ikastaroak otsailaren 15 eta 22an, martxoaren 1, 8 eta 15ean, arratsaldeko 5etan eta



ARTXIBOKOA

Aresoko parrokiaren katekisten formakuntzarako eta ezkonarrekiko ikastaroak ematen ari dira.

euskaraz soilik Leitzako parrokiaren.

Hitzaren ospakizuna ere martxan jarri nahi da, herri txikietan gehienbat apez gutxi eta me-

za asko elkartzen baitira igandetan. Momentuz, diakonoak seglar batekin martxan hasi zen igandean Goldarazko elizan.

LEITZA

Mendibil taldeak aurten prestatu dituen ekitaldien berri eman du

Mendi taldeak materiala erosi arren, egoera ekonomiko ona du

Mikel ILLARREGI

Mendibil mendi taldearen egoera ekonomikoa ona da, mendiko materiala erosi arren, urteko batzarrean ikusi zenez. Aipatu bezala materiala erosi da, bazkideek erabil ahal izateko; kranponak, pioletak, erraketak, soka,... Iñigo Irazoki eta Pello Belaunzarán arduratuko dira honetaz. Materiala berria ere erostea proposatu da; elur jauzien azpian gelditutakoak aurkitzeko tresna, arba-ortovox-a alegia.

2003. urterako proposatutako egutegia onartu zen. Umeekin egiten diren ateraldiei dagokionez, laguntzailer gehiago izatea komeni da, larunbat goizetan batzuetan juxtu samar ibiltzen baitira. Bestalde, irteera horietarako aseguru bat kontratatzea proposatu eta onartu da.

Andoingo mendi taldeak, Adarra-Mandoe-gi inguruko parke eolikoaren inguruan abiatu nahi dituzten ekimenen berri eman dio Mendibil taldeari, baita ekimen horietan parte hartzea proposatu ere. Oraindik guztiz zehaztuta ez badago ere, hitzaldiak, mahai-inguruak, argazki erakusketak eta mendi ibilaldiak edo antzekoak izanen dira. Apirilaren 27rako mendi ibilaldia antolatzen ari dira.

Mendi taldeak lehenagotik ere Adarra-Man-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Mendibil taldeak hilebeteko azken asteburuan egiten ditu mendi ateraldiak.

doegiko parke eolikoaren inguruan Andoingo mendi taldeak ekarritako idatziari atxikimendua eman zion.

Beste aldetik, Federazioak Nafarroako mendi talde guztiakin bildu nahi du. Mendibil, Guratz-Mendi eta Lekunberriko taldearekin otsailaren 7an bilduko da.

ARGAZKI LEHIAKETA

16 lagun dira argazkiak aurkeztu dituztenak. Epai-mahaia aurreko aldirian bezala, Pako Zufiaurrek eta Idoia Zabaletak osatuko dute. Argazkiak erakusgai jarri nahi dira, ahal baldin bada kiroldegian, kanpotik eta sartu gabe ere ikusteko moduan.

Epaimahaiak erabakiko duen sariaz gainera, herritarrek ere botoa

emateko aukera izanen dute, irrattira deituta edo kiroldegian utziko den fitxa bat beteta. Botoa emateko garaian izenabizenak eman behar-

ko dira (bitan edo gehiagotan botoa ez emateko), eta boto emaleen artean argazki baten kopiaren zozketa egiten da. Horiek dira, beraz,



PERTSONAIA

Julian IPARRAGIRRE

16 urtz pilota irakasle... eta orain Euskadi Irratian esatari

Julian Iparragirre dugu aspaldi honetan Euskadi Irratian zenbait pilota partiduko esatari lanetan. Arantzan jaioa baina azken 35 urte hauetan Leitza bizi den pilotari afizionatu izanikoa, 16 urtez herriko pilota eskolako monitorea aritu da eta bere boza entzun dugu 4 eta erdiko banakako txapelketan eta orain binakakoan. Hemendik telebistara ez omen da salto handirik izaten...

batzarrean hitz egin eta erabakitakoak. Gogora dezagun, bide batez, lan hauek egiteko laguntza pozik hartuko dutela batzordean ari direnek.



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Ezin esan eguraldiak eraginik izan ez zuenez aurtengo ihauterietan, hala ere, ederki aurre egin zioten herriko kaletan edota baserritan barna ibilitakoek; «eguraldi txarrari aurpegi on».

BAZTAN

Gizakunde Eguna ospatuko dute Erratzun otsailaren 15ean

Arizkundik Erratzurat ganen dira Jo ala Jo taldeak eta Erratzuko Kultur Elkarteak antolatutako ekitaldian

ttipi-ttapa

Heldu den asteko larunbatean, otsailaren 15ean, Gizakunde Eguna ospatuko dute Erratzun, Jo ala Jo taldeak eta Erratzuko Kultur Elkarteak antolatuta.

Besta atsaldeko 18:00etan Arizkungo Elkartearen hasiko da, bertan merendatu eta mozorratuko baitira Erratzuko bidea hartuko du-

ten guziak. Kalejira hau atsaldeko 19:30etan egitea espero dute bide zaharretik. Mozorroekin batera, Berriozarko Bizkargain fanfarrea, Gallartako pulunpariak, txalapartariak, kirikoketariak, musikariak, Jantzilo eta bertze hainbat pertsonaia ibiliko dira.

Erratzurat atseko 22:00ak aldera ailegatzeara espero dute eta

behin ailegatuta, afaria egingen dute elkartearen indarrak hartzeko ondoko kalejira egiteko, atseko 12:00ak aldera. Afera akitzeko, herriko plazan, Jantzilo erre eta dantzan emanen dute hondar momentuak. Afarirako txartelako Erratzuko Zubipuntan daude salgai, beraz, fite erostea komeni da, akitu baino lehen.



San Anton eguneko zozketan aretzea zozketatu da lehendabiziko aldiz, behiaren orde. Aurten, Oskarizeko senar-emazte batzuk irabazi zuten sari nagusia.

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • © 948453060

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

MENDI
OSTATUA
Santiago 25 • © 948 580313
ELIZONDO

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

DIRULAGUNTZAK

Gartzain eta Iruritako eskoletan moldatze lanak egingen dira

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza saileko zuzendaritza nagusiak ikastetxeetan instalazio eta ekipamenduak berritzeko dirulaguntza eman dio Baztango Udalari. Gartzaingo eskola publikoa handitzeko eta Iruritako eskolaren sarbidea estaltzeko 39.823, 08 euroko dirulaguntza eman da.

onegin
Herbodietética Ekodenda

ZERBITZUAK:
DIETISTA: Gantzen neurketa, Diabetes, Kolesterolarentzako dietak, Argaltzeko dietak.
NATURISTA: Akupuntura, Homeopatia, Naturopatia, Psikoterapia, etab.

PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK
PRODUKTU ARTISAUAK

Jaime Urutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

BAZTAN

Museo etnologikoa osatzeko 600 tresna inguru bildu dira

Purioseneako egoitza Aste Saindurako irekitzea espero dute

ttipi-ttapa

Elizondoko Puriosean egingo den Jorge Oteiza Museo Etnografikorako 600 tresna baino gehiago bildu dira da-goeneko. Aste Saindurako edeki nahi da museoa eta hiru hilabete eskaseko epe honetan, etxea moldatu eta tresna horiek bertan kokatu beharko dira.

BaztaNgo lan moldeak eta ohiturak biltzeko egitasmo hau Ana Mari Marinek azaldu zuen, Elizondoko alkate egin zutenean, 2001eko ilbeltzean. Duela hilabete inguru utzi zuen kargua baina proiektuan murgilduta segitzen du. Izan ere, bere etxean daude 600 tresna horietarik aunitz. Bertzeak etxe partikularretan eta Balleko Etxean daude. Tresna hauek guziak katalogatuak daude eta Ana Mari Marin berak argazkia atera die banan bana.

Proiektuak 352.640

euroko aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Turismo Departamenduak 218.767 euroko dirulaguntza emanen du lanak egiteko.

Oihantzain lanpostuetarako deialdia

Balleko Udalak bi oihantzain lanpostu berritzeko deialdia egin du. Interesatuak nekazaritzako bigarren graduako



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

San Anton egunarekin ireki zuten ofizialki Lekarozko Larraldea sagardotegiko txotx denboraldia. Sagardo berria dastatzen lehendabizikoa Ibanesto.com txirrindulari taldeko Jose Miguel Etxabarri zuzendaria izan zen.

titulua izan beharko dute, oihangiintza espezialitatean, euskara jakitearen ziurtagiria aur-

keztu edo proba gainditu beharko dute eta lanpostua lortuz gero, Baztanen bizi beharko

dute. Proposamenak lehenbailehen aurkeztu beharko dituzte Balleko Etxean.

HERRIKO ETXEA

Herriko seme kuttunen eta ohorezko bizilagunen erretratoak Herriko Etxean

Baztango Herriko Etxean leku berezia eskainiko zaie herriko bizilagun famatu eta seme kuttunei. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak egingen du lan hori eta horretarako, Juan Eraso, Mariano Izeta, Eusebio Zudaire eta Miguel Javier Urmenetaren erretratoak eta datuak biltzen ari dira. Egitasmoa, Mariano Izetaren

heriotzaren ondotik proposatu zen, eta Juan Eraso hildakoan bizkortu egin da. Kultur munduan, azken 50 urtetan lau pertsona hauen lana goraiatu du Udalak. Izetarena 1997an, Erasorena 1992an, Eulogio Zudairena (Iturgoiengo Crisanto aita kaputxinoa) 1989an eta Nafarroako diputatu eta Iruñeko alkate izan-

dako Miguel Javier Urmenetarena 1968an. Azken hau Elizondon bizitu zen urtetan, Kontxita Otxoa emaztearekin. Urte zailetako Baztandarren Biltzarra antolatzen lagundu zuen. Eulogio Zudairen Baztango historiari buruzko lanak egin eta argitara eman zituen Lekarozko ikastetxetik.

Mariano Izeta eta Juan Erasoren lana ere aski ezaguna da. Biak Elizondoko alkate eta Junta Generaleko kide izan ziren.



BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• © 948 580373 • 608 776176



asnáp me
Asesoria, Asesoría y Asesoramiento

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asesoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aldarpenak

DOHERTEBI
Euz. Sanmarta, 4 bilaka
Tlfno: 948 431823 Tlfno/Fax: 948 431419
www.asnapme.com

ELIZONDO
Santago, 51 bilaka
Tlfno/Fax: 948 580 504
elizondo@asnappme.com

IBARRA
Sanmarta, 1 bilaka
Tlfno: 948 363208 Tlfno/Fax: 948 363194
punperrin@asnappme.com

SENPERE

Maiatzean ospatuko den hogeigarren Herri Urratsaren kantua prest da

Senpertarrek maite ditugun hondartzak zikindu ditu Prestigek

Franck DOLOSOR

Maiatzaren 11n, aintziraren ospatuko den hogeigarren Herri Urrats ikastolen aldeko bestaren kantua grabatu dute berriki Iparraldeko zombait kantarik. Hauen artean, Aire ahizpak, Peio eta Pantxo, Niko Etxart, Maddi Oienart, Domeka Zubeldia, Pantxika Solorzano eta Hazparneko ikastolako haurrak daude. Hitzak Ernest Alkat bertsulariarenak dira eta musika aldiz Mixel Ducauk egina du. Kantu berri huren grabaketa Donostiako Elkar diskaetxean egin da eta hantxe kamerak ere egon dira bideo klipa bat egiteko gisan. Lehenik helduek kantatzen badute, kantuararen hondarreen haurrak entzun ditzazke. Kantu berri huren erritmo polita du eta gure belarriak goxatuko ditu Herri Urrats egunean egun osoan entzunen baita aintziraren inguruan.



ARGAZKIA: AFP.



Herri Urratsko aurtengo logoa.

Miarritzeko hondartza beltzatu du Prestigerekin petrolioak.

Herriarrek biziki maite ditugun hondartzetan Prestigerekin hondarrak agertzen ari dira

Lehen orbanak, urtarilaren 11n heldu ziren Erromardiko hon-

dartzarat bainan urtarilaren 28az geroz egun guziz petrolio ainitz agertzen ari da. Prefeturaren arabera dena kontrolatua da ehunka kilo zikin heltzen ari delakotz bainan gure hondartzek itxura biziki txarra dute zinez. Gaine-

rat, gehienak hetsi zaizkio publikoari eta itsas-kiak biltzea ere debeatua da. Herriko surfzale, arrantzale, mainatu ala itsas bazterrean oinez ibili maite dutenentzat gertakari ilun eta kezagarriagoa da. Turismoak ere zailtasunak biziko ditu erreserben kopurua azkarki apaldu baita jadanik. Gauza onik ez beraz gure ostalerrentzat.

Bertzalde, mementuan agertzen den petrolioak Bordele ondoan biltzen dute eta geroxeago Mugerreko fretzentroan ere eman ditzate. Zikin hauek ez dute gauza onik ekartzen nehorrentzat ez badira berehala tratatzen eta garbitzen.

Gainerat, solas batzuk izan ziren hastapenean ez ote zen Fapa baliatuko. Mementuan ez da halakorik gertatuko baina azkenean Galiziako istripu larriak ondorioak ere izan ditzake gurean.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenekin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

MARTIKO

DENDA ORDUTEGIA
Astelehenerdik Ortziralera: 8:00-12:30 eta 14:30-17:00
Abenduko larunbatetan: 9:00-13:00
Tel: 948 625016 • Fax: 948 625036 • BERA

AZKAIN

Ihauteriak otsailaren 22rat gibeleratuak izan dira

Bi bidaia antolatzen dira aurten Bollendorferat joateko

Ihintza, Angela eta Eneko

Ihauteriak ez dira 15ean ospatuko hastapen batean errana izan zen bezala. Altxalili eta Gemuku elkarteek 22rat gibeleratuak erabakia hartu dute.

Egitaraua ez da hala ere aldatuko. Goizean Hartza iratzarriko da eta etxez etxe ibiliko dira gazteak «xingar ta arroltze» eskatzeko. Elgarrekin bazkaltzeko asmoa dute gazteek Bil Tokin.

Arratsaldean herritarrek ibilaldia egingen dute karriketan moztorturik, hartzarekin batera. Gaiteroak, trikitalari eta panderoak, dantzariak, bertsolariak, dantzariak, herritar askok parte hartuko du animazioetan. Pantzarri auzia egingen zaio eta normalki sutara kondentua izanen da. Bil Tokin krakada eta zintzur bustitzea eskainia izanen zaie herritarrei.

Bollendorferat bi bidai

Azkain-Bollendorf anaitasun elkarteak bi ateraldi eskaintzen ditu aurten. Lehen bidaia, urtero bezala, Otsailaren 28-tik, martxoaren 8-rat egingen da, Bollendorf herriko ihauterikari. 180 euro balio du bidaiak eta edozoini idekia da (100 euro gazte eta langabetuentzat). Bizilekua dohainik izanen da hango familiek beren gain hartzen dutelakotz. Egitaraua Bollendorfeko taldeak antolatzen du. Ondotik Urrian 40 pertsona Azkainerat etorriko dira Alemaniatarik, urtero bezala.

Bigarren bidaia apirilaren 9tik 16rat iraganen da. Bazkoko oporretan. Bertze bi elkarrek parte hartuko dute: Kornelio musika eskola eta Ikasleak dantza taldea. 5 egun oso han iraganen dituzte, izadiaren defentsaren inguruan



ARTXIBOKOA

Ihauteriak otsailaren 22an ospatuko dira. Goizean iratzarriko da hartza eta etxez etxe ibiliko dira gazteak «xingar ta arroltze» eskatzeko.

tailerrak proposatuak izanen dira. Edozoin gazteak parte hartzen ahal du.

Aratzen berriak

Aratzen afera dei auzian pasa zen urtarriaren 15an. Erantzuna apirila aintzin ezagutuko da normalki. Jakin behar da 18 urteko kartzela zigorra ezarri ziotela lehen epaketan. Abokatuak dei auzian lekukotasun faltsuak, froga eskasa eta zigorraren neurrigabekotasuna azpimarratu ditu eta zigorra ttitkitzea espero dute.

Momentu hauetan kartzela zaindarekin arazoak dituela salatzen du Aratzek, gauetan argia noiznahi pizten

omen diote lorik egiten ez uzteko, eta berrikitan familiaren bisita ukatu diote. Sustengu bazkaria egin zen Elizaberrin urtarriaren 26an, Arkaitz eta Iraunen komiteekin batera. 150 pertsona bildu ziren. Apirilean bazkari bat Azkainen antolatzeko asmoa da.

Mendi ibilaldiak

Ibiltzaile mendi taldearen ondoko ateraldiak hauek dira:

Otsailaren 9an Mantto Baita, Deskarga, Intzola, Ibardin; 11n Mondarrain (Ainhoa); 13an sarako usotegiak; 16an Sararen inguruan; 18an, Ainhoako oihana eta benttak, 20an Ibardin Bera.

Eski ateraldia

Eski ateraldia antolatua da otsailaren 8an 8-15 urteko gaztekoentzat. 30 euro balio du ateraldiak (autobusa, txartela, materialaren alokatzea). Xehetasun gehiagorentzat Laurent Albistur deitzen ahal da (06 18 62 02 06).

Bertze ekitaldiak

Otsailaren 8an seilauru hustea egingen da plazan.

Otsailaren 15ean Amaiak animazio bateskainiko du ipuinak kontatuz euskaraz 4-6 urteko haurrentzat liburutegian. Martintxo otsailaren 28an bilduko da herriko ostatu batean.



TOLDOAK

SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA



PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK,
MOSKITERAK eta VENEZIANAK





SALMENTA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA

Gernika Deialdiak haritz landatzea egin zuen urtarrilaren 18an

XVIII. mendean deportatutako lapurtarrak gogoratzuz

Xan HARRIAGUE

Urtarrilaren 18an larunbatarekin 50 bat jende bildu ziren Gernika deialdiak antolatutako haritz landatzetara. Lehen deialdi bat egin zen azaroaren 9a ezker abertzaleak jasaten dituen problemen kontra elkartzeko eta antolatzeko. Horren ondotik erabaki zuten haritz landatzeak egitea herrialde guzietan historian inportantak izan zirengertakari batzuen tokietan hala nola Saran, Amaiuren, Hernanin, Mithikilen etab... Sararen kasuan Iraultza denboran, Frantzia eta España arteko gerla batean, hegoaldeko anaien kontra borrokatu nahi ez zutelako deportatuak izan ziren 4000 hego lapurtarren omenez egin zen. Horien artean anitz hil ziren erahilak edo eritasunez eta itzuli zirenak etxe xehatuak edo

erreak baizik ez zituzten atseman. Zoritxarrezko gertakari hori ez ahanzteko haritz bat landatu zen Herriko plazan, Manex Bergarak eta Amets Arzalluzek bertsu batzuk kantatu zituzten eta ekitaldi hori bukatzeko Patrik Etxegaraiek Agurra dantza zuen.

Presoen aldeko afaria

Urtarrilaren 25ean, iaz ezpazen egin ere urte guziz egiten den eskual presoen aldeko afaria egin zen Omordiako jantokian. Usaian baino jende guttiago hurbildu zen bainan gaualdia giro onean iragan zen hor ziren 70 jendeen artean. Afariaren ondotik batzuk mahainean egon ziren solasean edo kantan eta bertze batzuk animatuenak dantza aritu ziren goizeko 4ak arte.

Errugbia

Sarako basurdeek urtarrilean aski ongi aritu dira matxa guziak irabazi bait dituzte salbu azkena. Hala nola 19an igandearekin Saint Jean de Marsacqeko taldea menperatu zuten Animainiako zelaian 23 eta 8. Aldiz Xiberora gan zirelarik 26an ezin izan zuten irabazi Mendikotarren kontra eta gutti baldin bada ere galdu zuten 8 eta 0. Sailkapenean lehen postuetan dira eta hala segitzen badute kalifikatuko dira hirugarren sailleko lehen multzoan.

Auzapezaren urteko bilduma

Urtarrilaren 17an, urte guziz bezala auzapezak iazko bilduma eta heldu den urteko asmoak azaldu zituen numbrea etorritako Sarako elkarteen ordezkarien eta herritar ba-



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE
Gernika Deialdiaren ekimenez plazan landatutako haritza. Goitian, Manex Bergarak eta Amets Arzalluzek bertsu batzuk kantatu zituzten eta ekitaldia bukatzeko, Patrik Etxegaraiek Agurra dantzatu zuen.

tzuen aitzinean. Ondotik trago bat eskainia zen eta giro onean jendea luzaz egon zen solasean eta eztabaidetan. Iazko bilduma laster ukanen duzue postaz.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ANZABAL

AGENTZIA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa eta Faxa: 948 580804

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853



EZKONTZAK

Juan Martin Elizondo eta Lourdes Indaburu Irigoien, Arike eta Etxalarkoa, urtarrilaren 25ean.



SORTZEAK

Xabier Martikorena Saharrea, Berakoa, urtarrilaren 11n.

Ekiñe Taberna Fagoaga, Berakoa, urtarrilaren 11n.

Eider Molinero Barreto, Berakoa, urtarrilaren 18an.

Pello Fagoaga Izquierdo, Erratzukoa, urtarrilaren 26an.

Izaro Iparragirre Irigoien, Lesakakoa, urtarrilaren 21ean.

Joritz Eugi Urtxegi, Igantzikoa, urtarrilaren 19an.



HERIOTZAK

Felicitas Dominguez Zabaleta, Berakoa, urtarrilaren 19an, 79 urte.

Jose Mari Altzugarai Ordoki, Lesakakoa, urtarrilaren 15ean, 85 urte.

Eusebia Arruti Arregi, Elgorriagakoa, urtarrilaren 17an, 88 urte.

Benedicta Sanzberro Elizalde, Etxalarkoa, urtarrilaren 15ean, 84 urte.

Jose Maria Arrastio Agerralde, Nartekoa, urtarrilaren 27an, 87 urte.

Angel Francisco Alberro Zugarramurdi, Arraiozkoa, urtarrilaren 22an, 89 urte.



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



Kristobal
GOIKOETXEA ELIZALDE

Leitzan hil zen 2002ko azaroaren 22an,
74 urte zituela

*Aita ta senar paregabea
Izan zintugun etxean
Sentimenduak utzi ezinik
Gabiltx oraindik atzean
Zure irudia ikusten dugu
Gauero zeru beltzean
Betiko nola biziko zeran
Etxekoan bihotzean.*

Bere aldeko meza Ezkurran otsailaren 9an.



G U T N T I T L E
I CHE
GESTIONES FINESES ELNTE, S.L.

TANATORIO
BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta
Zugarramurdi

24 orduko zerbitzua
tanatorioan eta etxean
prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

ESKUBALOIA



ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA

Baztango Kirol Taldearen izenean ari diren neskek: Gibeletik aitzinera, nagusiak, lehen eta bigarren mailako kadeteak eta aitzineko lerroan Lekaroz taldeko infantilak.

Eskubaloian ari dira adin ezberdinetako neskek Baztango Kirol Taldean

Nagusiak lidergoan indartsu daude Nafarroako Bigarren Maila Nazionalean

Aitor AROTZENA

Baztango Kirol Taldeak emakumez osatutako lau eskubaloitarte ditu denboraldi honetan lehian: senior mailakoa, kadete mailako bi eta infantil mailakoa, Lekaroz izenarekin.

Helduetan, gan den urtean jubenil mailako taldean aritutakoak dira gehienak. Aurten, beraz, ez da gazte mailako talderik kantxaratu. Dena den, ez dirudi maila aldaketak kalterik egin dienik, erabateko nagusitasuna erakusten ari baitira Bigarren Maila Nazionalean. Orain arte jokaturako bederatziz partidak irabazi dituzte eta zortzi puntuko abantaila ateratzen diote bigarrenari Joxe Iturzaetak prestatutako neskek. «Ongi ibiliko girela pentsatzen nuen

—dio Joxek— *baina lan gehiago izanen genuela uste nuen, batez ere Ohorezko Mailan tartetika ari diren neskek dituen Itxakorekin*». Hau idazterakoan oraindik zazpi partida falta di-

tuzte, baina hiru irabaztearekin aski dute liga eskuratzeko eta sektore fasea jokatzeko. «*Hori da gure helburua*».

Kadete mailan, txapeldun izateko multzoan sartu da talde bat eta

aitzineko postuetan dabil. 9 eta 15. postuak erabakitzeak multzoan ere aitzinean daude Baztango neskek.

Ttikienak, infantil mailako Lekaroz taldean ari dira. Adin hauetan, nos-

ki, eskubaloian aritzen ikastea da garrantzitsua. Momentuz ez dute partidarik irabazi, baina pittanaka maila hobetzen ari dira eta gero eta itxura hobea ematen dute.



Joxe ITURZAETA Entrenatzailea

“Lehenbiziko mailara igaten bagara aurrekontuak goiti egingen luke”

Sektore fasea jokatzeko ez dirudi arazo handirik izanen duzuenik...

Orai arte ikusi denaren arabera, hor izanen gara. Estatu osoan hiru sektore fase jokaten dira eta irabazleak lehen maila igaiten dira.

Eta iguera lortuz gero?

Lehendabiziko maila nazionalean jokatzeko eskubidea izanen genuke, baina hor aunitz aldatzen dira kontuak. Kanarrietan aritzea ere suertatzen ahal da eta aurrekontua dexten-

te igoko litzateke. Gainera, ikusi behar da neskek horretarako prest dauden edo ez, sponsorrak lortu...

Adin tailagoetan talde gehiago ere badituzue...

Aurten berez jubenilak diren bortz neska talderik gabe gelditu dira, jende aski ez zelakoz. Kadeteak eta infantilak hor daude, baina arazorik larriena monitore falta da. Orai ez da mutilik Baztangon eta aunitz monitoreak falta direlako da.

BKT SENIORRAK: 2. MAILA NAZIONALA

Lorea ARBURUA	ELIZONDO
Lorea ATXA	ELIZONDO
Izaskun ARREGI	ELIZONDO
Izaskun DANBORIENA	AZPILKUETA
M ^a Jose SALABURU	IRURITA
Andrea RODRIGUEZ	ELIZONDO
Amaia IRIGOIEN	ELIZONDO
Itziar IRIGOIEN	ELIZONDO
Ixa IRIGOIEN	ELIZONDO
Enea ARRETXE	ELIZONDO
Itziar PLAZA	IRURITA
Aintzane MARIEZKURRENA	AZPILKUETA
Maria AZKARRAGA	IRURITA
Josune ITURZAETA	ELIZONDO
Jaione LARRE	ELIZONDO
M ^a Jose ALEMAN	IRURITA
Nerea LIZASOAIN	ELIZONDO
Entrenatzailea Joxe ITURZAETA	



Baztango Kirol Taldeko talde nagusia, bigarren maila nazionalen ari da.

BKT «A» KADETEAK

Estitxu ARRAZTOA MAGAÑA	ELIZONDO
Estitxu OLONDRIZ GARAIKOETXEA	ELBETE
Itziar JAEN MARITORENA	ELIZONDO
Loimaz AZURMENDI GAZTELUMENDI	ELIZONDO
Naxara MEOKI ITURRIA	ELIZONDO
Garazi ARRETXE ANANUA	GARTZAIN
Elisa ARRETXE URRUTIA	ELIZONDO
Maria GAZTELUPE GARAIKOETXEA	ELIZONDO
Garbiñe GONI ERROTABEREA	ELIZONDO
Ane ALBERRO TRANTXE	ELBETE
Maidar ESCUDERO AMIANO	ELIZONDO
Ainara UNANUA ARIZMENDI	GARTZAIN
Entrenatzailea: Enrique PETRIRENA	



Baztango Kirol Taldeko A mailako kadeteak.

BKT «B» KADETEAK

Idoia LARRATXEA	ELIZONDO
Iratxe OTERO	ELIZONDO
Oihana OTERMIN	ELIZONDO
Maitane ETXEBERRIA	ARIZKUN
Isabel CENOZ	ZIGA
Ainhoa IRIARTE	IRURITA
Itziar TORRES	ELIZONO
Anais PEÑA	GARTZAIN
Eli LIZARTZA	ARIZKUN
Saioa JAURENA	ELIZONDO
Aitziber ARREGI	IRURITA
Entrenatzailea: Amaia IRIGOIEN	



Baztango Kirol Taldeko B mailako kadeteak.

LEKAROZ INFANTILAK

Edurne SOBRINO LOPEZ	ELIZONDO
Idoia MAIA DAGERRE	ELIZONDO
Maita GOIKOETXEA APEZTEGIA	IRURITA
Oihane PRIM AGERREBERE	IRURITA
Garaxi URTASUN ERRO	IRURITA
Miren SOBRINO LOPEZ	ELIZONDO
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORNOZ
Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Ines LABORRA BARAU	ELIZONDO
Maita LABORRA BARAU	ELIZONDO
Itxaso ARIZMENDI APEZTEGIA	ORNOZ
Nerea GIL ZIAURRIZ	ELIZONDO
Maita RODRIGUEZ TELLETXEA	ELIZONDO
Oihane LAMEIRINHAS ORTUOSTE	ELIZONDO
Entrenatzaileak: Iosune ORTEGA eta Iratxe ARREGI	

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

ZUGARRAMURDI

Otsailaren 9an Lesakara aterako da Zugarramurdi Atxuria mendi taldea.

BAZTAN

Otsailaren 9an Alkotzera aterako da Baztango Mendigoizale taldea.
Otsailaren 16an Urrizpilotara aterako da Baztango Mendigoizale taldea.

AZKAIN

Otsailaren 9an Mantto Baita, Deskarga, Intzola, Ibardin ibilaldia egingen du Ibiltzaile mendi taldeak.
Otsailaren 11n Mondarrain (Ainhoa).
Otsailaren 13an Sarako usotegiak.
Otsailaren 16an Sararen inguruan.
Otsailaren 18an Ainhoako oihana eta benttak.
Otsailaren 20an Ibadin-Bera

ESKI ATERALDIAK

BERA

Otsailaren 22an Luz Ardidenera ateraldia antolatatu du Agerra Mendi Taldeak. Xehetasunak 10. orrian.

AZKAIN

Otsailaren 8an zortzi eta hamabost urte arteko gazteboentzat eski ateraldia antolatatu da. Xehetasunak 25. orrian.

BAZKARIAK

BERA

Otsailaren 9an Arkupeak elkarteko Berako jubilatuen bazkaria Zalainen 13:30etan. Aitzinetik, hildako bazkideen omenez meza izanen da.

IGANTZI

Otsailaren 14an Arkupeak elkarteko Igantziko jubilatuen bazkaria La Villan. Aitzinetik, hildako bazkideen omenez meza izanen da.

TELEBISTAKO TXOKOA



IÑAUTERIEK SEGIDA TTIPI-TTAPAN

Igantzi eta Arantzan hartuko dute lekukoa mozorroek

Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen pulunpa soinuak eta mozorroen astakeriak, Sunbillako karroza ikusgarriak, eskolako neska-mutikoen disfrazak eta gazteen eskea... ttipi-ttapa telebistan horiek guztiak ikusi ahal izan zenituzten joan den astean. Jakina denez, aurtengoan iñauteri «ofizialak» martxo hasieran izanen dira, otsailaren 27ko Ortzegun Gizen egunarekin abiatuta. Baina hori ailegatu bitartean, bertze iñauteriak ere izanen dira. Erraterako, aste honar honetan berean Donamariako-gazteak eskean ibiliko dira, beraien bazkari-afariak egiteko. Arantzan ere, mozorro xuriek beraien ohiko

ibilbideak egingen dituzte auzoz auzo eta baserri baserri. Hauek otsailaren 15 eta 16ko aste hondarra hautatu dute iñauteriak ospatzeko. Igantzikoek berriz, otsailaren 21 eta 22an egingen dituzte iñauteriak. Ortziralean Berrizaun inguruan ibiliko dira gazteak eskean eta larunbatean herrian eta inguruko auzoetan. Bi iñauterien berri ttipi-ttapa telebistan izanen duzue.

SUNBILLAKO IÑAUTERIETAKO BIDEA SALGAI

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK Sunbillako iñauteriei buruzko bideoa ekoiztu du bertze urte batez. Sunbillako estankotan izanen da salgai.

DISKAK



«Ados»

Ados

GOR, 2002

2001. urtean desagertutako Hemendik At! taldearen errautsetatik sortutako ekimenaren estreinako lana da. Aipatu taldeko Stellak eta Edurnek osatu dute talde berria eta Galar-Espartzako Sonido XXI estudioan grabatu dute lehen-dabiziko lan hau. Bi nesken jatorrizko taldea zen den kontuan hartuta, ez dago dudarik diskoan bildutako erritmoak dantzarako aproposak direla. Dance estiloaren erritmo eta osagarriez hornitutako doinuak, teknoa, progresibea eta bertzelakoak nahasiz hamabi kantuetan. Baina doinuaz eta dantzaz gain, esaldi zuzeneko letrak ere baditu diska honek: sexuaz, sentimenduez, Euskal Herriko egoeraz ari dira. «Horiya» kantuan Saharako herria eta gurea lotzen dute eta «Ilegal» abestia Batasunaren ilegalizazioaz ere ari dira.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 17tik 24era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28,00 €

Zerri gizona
0,885 € kilo.

Zerramak:
0,43 € kilo, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,34
1.koa 3,22
2.koa 3,10

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,40
1.koa 3,28
2.koa 3,17

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 262,00 € eta idixkoak 252,00 €

Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,79/2,95
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,25/5,55
8-10 kilokoak: 4,40/4,75

JAKIN BEHARREKOAK



Zer dira gaueko izu-ikariak?

- Gaueko izu-ikariak loaldia-en lehen zatian ageri dira.
- Batez ere haurretan ematen da (helduetan agertzen bada, alterazio psikologiko atxikiak topatu ohi dira).
- 4 eta 12 urtea artean agertzen dira batez ere, eta nerabezaroan berez desagertzen dira.
- Helduetan, 20 eta 30 urte artean agertzen dira.
- Ezaugarriak: oihu sarkorra eta beldur handiko adierazpenak (ostikadak, sonambulismoa...), antsietatea luzarozan, bihotz taupaden gehitzea, izerditzea, lo egon arren begi irekiak eta portaera automatikoa izan ohi du, begi-ninien dilatazioa, giharren gogortzea, normalki ohatzean eseri eta

ez du kanpoko estimuluei erantzuten.

- Ernatzen bada nahasia egonen da, eta normalki biharamonean ez du deus gogoratu.

ZER EGIN GAUEKO IZU-IKARIAK GERTATZEN DIRENEAN?

- Loaldira arruntera itzultzen lagundu. Ez saiatu ernatzen. Lasaitu, besarkatu, ez bortizki mugitu.
- Lesioetatik babestu, lasterka hasten ahal da eta paretaren kontra jo edo leihora joan...
- Gaueko izu-ikariak nekearengatik sortzen ahal dira, beraz, beti ordu beretsuan oheratzea eta lo nahiko egitea komeni da.

NOIZ JOAN BEHAR DA MEDIKURA?

- Normalki ez da medikura joan beharrik, gaueko izu-ikariak ez baitira arriskutsuak eta ez dute bertzelako patologia-rik sortzen. Dena den, kasu hauetan joatea komeni da:
- Lerdejariora, espasmoak edo zurruntasuna izaten duenean.
 - 30 minutu baino gehiago irauten badu ikarialdiak.
 - Ikarialdian zerbait arriskutsua egiten badu.
 - Gauaren bigarren erdian gertatzen bada.
 - Haurrak egunez beldurra baldin badu.
 - Ikarialdiendako bertze arazoirik badela uste baduzu.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak

AGENDA egunez egun

IÑAUTERIAK

ARANTZA

Otsailaren 15 eta 16an
Xehetasunak 14. orrian.

DONAMARIA

Otsailaren 8 eta 9an.
Larunbatean bazkaria, eskea eta afaria Agerralde akordeolariarekin. Igandean bazkaria eta arratsaldean txokolatada.

ERRATZU

Otsailaren 15ean
Gizakunde Eguna, Jo ala Jo taldeak eta Erratzuko Kultur Elkarteak antolatuta.
Xehetasunak 23. orrian.

ERAKUSKETAK

GOIZUETA

Martxoan hasierarako iñauteriei buruzko erakusketa prestatu nahi du herriko kultur taldeak. Horretarako materiala (argazkiak, mozorroak...) udaletxera eraman behar dira.

AZKAIN

Urtarrilaren 30etik
otsailaren 12ra Kantuketan erakusketa Bil-Toki gelan, egunero 10:00etatik 12:00etar eta 14:00etatik 19:00etara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Otsailaren 3tik 9ra

Bera (A. Lasarte), Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Leitza (M.T. Plaza) eta Goizueta.

Otsailaren 10etik 16ra

Bera (A. Fernandez Diez), Doneztebe (M.Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga Gil) eta Goizueta.

Otsailaren 17tik 23ra

Etxalar, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza (M.I. Larraia), Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA	Noiz: Otsailak 14, ortzirala Ordutegia: Arratsaldeko 18:00etan. Lekua: Liburutegian
Noiz: Otsailak 6, ortzeguna. Ordutegia: Arratsaldeko 20:30etan Lekua: Kultur etxea	Ipuin kontalaria: Estitxu Mentaberri Ipuinen mundura hurbilduta gaitu Estitxu Mentaberri, itakien zuzendutako emanaldian. Euskal idazleen ipuinak.
Zinekluba: Lugares Comunes Adolfo Aristarain zuzendari argentinarraren azken filmak publiko guztiaren txaloak jasotzen ditu. Federico Luppi, Mercedes Sampietro eta Arturo Puga.	Noiz: Otsailaren 12tik apirilaren 9ra. Ordutegia: Asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara Lekua: Kultur Etxean.
	Betiko euskal kantuen ikastaroa Natalia Ordokik kantagintza ikastaroa eskainiko du Lobiago ikastolaren eskutik. Mahaiaren buruan beti kantatu izan diren abesti horiek erakutsiko dizkigu. Izan ematea 10 euro gostako da, eta otsailaren 7a baino lehen egin behar da (012 tel.)

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragarkia jartzeko edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

ARIZKUN. Pisu-mobleztatua salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko moduan. ☎ 639 012 085

LESAKA. Bittiria, 38. Pisu salgai. Egoera onean. ☎ 948 637 267 (8etatik aintzin)

BERA. Etxe elkartuak salgai. Garajea bi kotxeentzat, gordelekua eta komunarekin. 4 logela, ganbara eta lorategia urreztatze automatikoarekin. ☎ 948 631 322 (JOSEBA).

BULDAIN LEITZAN

Manuel Lasarte Kalean
garaie berriak salgai.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

ADOS

• DONEZTEBE •

8 pisu berri, terreno eraikigarri batzuk eta bigarren eskuko 3 pisu salgai.
948 451 841
639 494522 • 607 978656

ADOS

• BERA •

5 PISU SALGAI.
948 451 841
639 494522 • 607 978656

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartzeko

BERA. Pisu errentan hartuko nuke. ☎ 626 852 937

BERA. Pisu edo bizitzeko egokituriko "teilatupea" hartuko nuke. ☎ 655 706 363 (arratsaldeko 5etatik aintzin).

GARAJE/LOKALAK

109 Errentan emateko

BERA. Bidasoa 49, lokal bat errentan emanen genuke. ☎

948 631022.

BERA. Garajea errentan eman nahi da. Bidasoa karrrika, telefonikaren ondoan. ☎ 948 631 033

ETXALAR. Nabe bat errentan emateko. Karreteran bertan, herriaren sarreran, Lopen lantegia zena. 300 m² inguru, 4 bulego, nabe bat eta komuna. ☎ 948 635 013

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

REPARACIONES RODRIGO. Iturgintza, elektrizitatea, pertsiaren zerrailgintza, pintura... Elektragailuen moldaketa tikiak. Seriotasuna eta azkartasuna. ☎ 600 352178 (Elizondo).

LANA

301 Eskaria

Emakume batek lan eginen luke etxeak garbitzen edo jantxe batean laguntzen. ☎ 626 852 937

Emakume eta gizonezko bat edozer lan egiteko eskeintzen dira. ☎ 650 818 985

Emakume batek urmeak eta xaharrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 650 065 062

Emakume batek garbiketaren lan eginen luke. Esperientziarekin. ☎ 948 387 018

LANA

302 Eskaintzak

BERA. Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 948 630 728.

Kamarero bat behar da ostatuan asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 631 394

IBARDIN. Urte osoan al-mazenean lan egiteko mutila behar da. ☎ 948 630 734.

Aire kontrolatzailea aire-portuendako. AENAren deial-





JATORRIZKO IRAKASLEA LESAKA

948 637135 • 948 637 062 • 652 582 614
Jeremy Quinton

- Haur eta helduentzako ikastaroak
- Azterketak egiteko prestakuntza
- Enpresa eta partikularrendako itzulpenak
- Atzerrian konfidantzazko ikastaroa

dia. Diplomata edo lizentziatua izan behar da. Ingles maila ertaina. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Autoeskolako irakaslea. Langabezirik gabeko lanbidea. Diru sarrera handiak. Presta zaituzte. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Oihanzaina. Euskadiko parke eta natur erreserbatan lan eginezazu. Eskola Graduatua. Presta zaituzte. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Suhiltzaileak. Euskadiko parketan lan eginezazu. Lan baldintza ezin hobekak. Es-

kola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Garraiolari profesionala izateko gaitze titulua lortu. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Udaltzaingoa laster deialdiak Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Liburutegi laguntzailea Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Administrari laguntzailea. Herriko Etxeetan laister deial-



BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

GIZARTE LANGILEAREN ORDEZKOA KONTRATATZEKO DEIALDIA

Bortzirieta Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak langile bat kontratatu nahi du gizarte langilearen ordezkapenak egiteko.

Kontratuaren iraupena 18 hilabetekoa izanen da.

• Baldintzak:

- Titulazioa: Gizarte laneko diplomatura.
- Euskalduna.
- Kotxe eta karneta izan behar ditu.

• **Eskaeren aurkezpena:** Mankomunitateko Idazkaritzan, Etxalarko Herriko Etxean.

• **Aurkezteko epea:** Otsailaren 19ko eguerdiko 12ak arte. Deialdia gainontzeko baldintzak interesatuen esku daude Mankomunitateko Idazkaritzan.

Etxalarren, 2003ko urtarrilaren 20an.

Presidentea

diak. Eskola Graduata. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Banku edo Aurrezki Kutxetan laguntzaileak behar dira. Batxilergoa. Laister deialdiak eginen dira. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Langilea Udaletxeak: Gi-dariak, Argiketariak, kontserjeak, langileak... Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

MOTORRA

501 Salerosketak

Cota 309 trialeko motoa salgai. ☎ 639 958 092

Peugeot 405 GL 1600 salgai. NA-5000-AJ. Egoera onean. ☎ 948 630 481

Trialeko motoa 370 cc, 1996koa salgai. Egoera eta prezio onena. Paperekin. ☎ 948 635 218 / 687 052 867(20:30etatik aintzin)

ANIMALIAK

601 Emateko

Lau hilabeteko zakurkumeak oparitzeko. ☎ 948 631 079

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Peugeot 306 TD, Saxo D, Terrano 5 atekoa, Mitsubishi 3 atekoa, Patrol 5 atekoa, Renault 19 D, Opel Midi, Lada
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



DENETARIK

702 Salerosketak

Piketeak salgai. Gaztain onekoak. ☎ 948 514 006 (Betatik 3etara).

GARTZAIN. Piketeak salgai. ☎ 948 585 008

Pinu Insignis landarea salgai. ☎ 943 557 230

Ura kloratzeko makina salgai. ☎ 679 892 036

Haritzeko atek, regueso eta janbekin salgai, eskutila eta guzi. Berri berriak. la erabili gabeak. Prezio hagitzen onean. ☎ 687 021 854

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Berako Zapatots Rondinau lantegian aritzen ziren langileak otordu baten inguruan nahi dira. Interesatuak deitu. ☎ 948 637766 (Anuntxi).

ANIMALIAK

602 Salgai

ARANTZA. 20 ardi auke-ran. ☎ 948 634 169

Mendiko behi emariak ume-ekin eta migak salgai. ☎ 655 706 073

20 ardi deretxoak salgai. ☎ 948 514 122

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

BERA. Giltzak galdu dira. Autoaren mandoa eta etxe-koak. ☎ 948 630 963

DONEZTEBE. Aro arropadendan betaurreko urdin batzuk agertu ziren errege bezpera egunean.

LITERATUR LEHIAKETA

Gaia: «Herriak eta hizkuntzak. Euskara eta Euskal Herria»

- Lanak aurkezteko epea martxoaren 29an itxiko da.
- Lanak Bortzirietako Euskara Mankomunitatera igorri behar dira.
- SARIAK:
 - 1.- 900 €
 - 2.- 450 €
 - 3.- Bortzirietako 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat 150 €
- Informazio gehiago edo oinarriak jaso nahi izanez gero: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea - 948 634125



Antolatzailea:

Laguntzaileak:

• EUSKADIKO KUTXA

• MARTIKO

• TABERNA EDARIAK

• BENTA MIGUEL



Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



YAGO CANTERO PEREZ beratarrak 3 urte bete ditu urtarriaren 26an. Zorionak familiaren partetik.



MARTIN CIRIZA zigaurdarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 29an. Zorionak etxekoaren partetik.



AITZIBER ETA MAIALEN TELLETXEA ZUBIETA oiartzuarrek eta **ALAITZ BENGOTXEA ZUBIETA** irundarrak 4, 8 eta 3 urte beteko dituzte otsailaren 11, 12 eta 16an. Zorionak familiaren partetik. Agur «Hirukotea».



UXUE ITURRRIA RAZKIN etxalartarrak urtea beteko du otsailaren 9an. Zorionak atxa, ama, Oier eta Markelen partetik. Muxu handi bat prinxexa.



ANDREA IRIGOIEN RAZKIN iruñarrak otsailaren 1ean 4 urte bete ditu. Zorionak Etxalarko familiaren partetik, bereziki Oier, Markel eta Uxue.



ARITZ AGIRRE BETELU iruñearrak 17 urte bete ditu urtarriaren 29an. Zorionak familiaren partetik. Aupa Aritz!



IKER ITURRIA POMBAR ETA JON ERRO FAGOAGA lesakarrak otsailaren 6an eta 27an 6 urte beteko dituzte. Zorionak beraien familien partetik.



BEÑAT LAZKANO ETXALAR donamariarrak 4 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.




IKER IRIARTE ALTZUGARAI lesakarrak 3urte beteko ditu otsailaren 15ean. Aunitz urtez Bixente, Pilarxo eta Iratiren partetik.



EGOITZ BALEZTENA GOKOTXEA leiztarrak otsailaren 17an urtea eginen du. Zorionak Aurtizko familiaren eta bereziki Ekiñeren partetik.



MANEX URRUTIAK otsailaren 9an 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez Azpilkuetako eskolakoaren partetik.



PEPITA GOIA beratarrak otsailaren 8an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta egun ona pasa zure bizilagunen partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO,

**BIDALI BERE ARGAZKIA,
TESTUA ETA 0,26 EUROKO
13 SEILO**

TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA (Nafarroa)

gmb
Grupo médico dental del Baztan

Otsailan **hartz klinika** berria irekiko dugu Elizondon! (ikastola parean)

Santiago 47, 1. C • 948 581 900

Odontologia

Periodontzia

Ortodontzia

Hartz-aginen estetika

Endodontzia

Implanteak

Masail kirurjia

Haur odontologia

Larrode Anne Marie -Doktoroa

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola
Ortodontzian Goi Mailako Ikasketa Zientzagarria

Caplanne Jean Pierre -Doktoroa

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola

Larrieu Thierry -Doktoroa

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hartz-haginen Eskola

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



Merkealdia erakusketako mobleetan eta bertze artikuluetan

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

euskara

ikasi



Deitu otsailaren 14a baino lehen!

OTSAILEKO MATRIKULAZIOA

- Maila guztiak eta EGA
- Ordutegiak aukeran

IZENA EMATEKO:

- Bortzirietako Euskaltegia
948 637 796
- Malerrekako Euskaltegia
948 451 555
- Leitzaldeko Euskaltegia
948 610 776



PEDRO LARUMBE, SUKALDARIA
ETA ENPREZARIA MADRILEN



MARÍA IBAÑEZ,
ABOKATUA




MITXEL ETXENIKE,
ENPREZARIA



MARTA MENDÍA, ESPAINIAR
TXAPELDUNA AITUERA-JAUIZIAN



JUAN CARLOS UNZUÉ,
OSASUNARO JOKALARIA



JUAN ANTONIO SAGARDOY,
ZUZENBIDE KATEGORADUNA, MADRID



CAMINO PAREDES, NAFARROAKO
MUSEOKO ZUZENDARIA



FAUSTINO AIZCORBE,
ESKULTorea



MATEO GARRALDA, PORTLAND
SAN ANTONIORNO JOKALARIA




ECHEN JIMÉNEZ ESQUIROZ,

Eskakizuna da euren konfiantzaren

GURE BEZEROEN ESKAKIZUNAK EGUNEZ EGUN
BEHARTZEN GAITU GURE PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK,
GURE ARRETA PERTSONALA HOBETZERA, ETA
GIZARTEAREN AURRERABIDEARI LAGUNTZERA.

DENEK IRABAZ DEZATEN

NAFARROAKO  KUTXA

Hobetzen ari gara zuk irabaz dezazun.